

ESTATUTUAK

Euskaraz, Koop. S.

I. KAPITULUA. IZENA, HELBURUA, EGOITZA, IRAUPENA, LURRALDE-EREMUA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA

1. artikulua. Izena

Euskaraz Koop. S. izenarekin irabazi-asmorik gabeko lan-elkartuko kooperatiba eratu zen Bilbon. Kooperatibaren jarduera Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen printzipioen eta Xedapenen arabera, ezarri beharreko gainerako lege-aginduen eta Estatutu hauen arabera antolatuko da. Euskarak hizkuntza ofizial izaera izango du. Kooperatibak hori ziurtatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

2. artikulua. Helburua

Kooperatiba honen helburua hau da: euskal kulturaren eta euskararen sustapena eta zabalkundea, eta euskararen irakaskuntza, eta helburu hau garatu eta bultzatzeko osagarriak diren beste ekimenak, hala nola material didaktiko zein aldizkarien edizio eta argitalpena, hizkuntza-normalizazio egitasmoen osaketa, euskara ikastea sustatzeko zein euskararen aldeko sentsibilizazio-kanpainen garapena, kultur ekitaldien antolaketa, euskara irakasteko irakasleen prestakuntza eta pareko helburuak dituzten elkarte, enpresa zein bigarren mailako kooperatibekin (irabazi-asmorik gabekoak barne) elkarlanean aritzea, eta partaide izatea.

3. artikulua. Egoitza soziala

Kooperatibaren egoitza soziala Bilboko Txakur kaleko 1. zenbakian, 4. solairuan finkatu da, eta artezkaritza-kontseiluak aldatzea erabaki dezake, udalerrri beraren barruan.

Egoitza sozialaren inguruko edozein aldaketa-erabaki indarrean dagoen legediaren arabera tramitatuko da.

4. artikulua. Iraupena

Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da, eta eratze-eskritura publikoa egilesten denean emango die hasiera bere eragiketei. Ez da irakaskuntza-jarduerarik izango 2002/2003 ikasturtea hasi baino lehen.

5. artikulua. Lurralde-eremua

Kooperatibaren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan burutuko da nagusiki.

6. artikulua. Estatutuen aldaketa

Bat Batzar orokorrak erabakiko ditu sozietatearen estatutuetan egiten diren aldaketa guztiak; horretarako, baina, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Proposamenaren egileek txosten idatzi bat aurkeztea, adieraziko duena zergatik egin behar diren aldaketak.
- b) Deialdian argi eta garbi adieraztea zer puntu aldatu behar diren.
- c) Deialdian espresuki azaltzea bazkide guztiak eskubidea dutela sozietatearen egoitzan aztertzeke proposaturiko aldaketaren testu osoa eta hura justifikatzen duen azalpen-txostena, eta dokumentu horiek eskatzeko edo etxean dohainik jasotzeko.
- d) Erabakia 35-Bat artikuluan ezarritako gehiengo arruntaren arabera hartuko da.

Bi. Eskritura publikoan idatziko da aipaturiko erabaki hori, eta Kooperatiben Erregistroan inskribatuko.

Hiru. Horrez gain, sozietatearen izena, egoitza edo helburua aldatzea erabakitzen bada, sozietatearen egoitza dagoen lurralde historikoan zabalkunde handia duen egunkari batean iragarriko da erabakia inskribatu baino lehen.

II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

1. ATALA. BAZKIDEEN ONARPENA

7. artikulua. Nor izan daiteke bazkide

Bat. Bazkide izan daitezke pertsona fisiko zein juridikoak, publiko nahiz pribatuak, betiere kontuan izanda indarrean dagoen legediak ezarritako salbuespenak.

Bi. Bazkide-langileak pertsona fisikoak dira. lanaldi osoan edo partzialean beren jarduera ekonomikoa edo profesionala kooperatiban garatuko dute.

Bazkide-langileek sozietate-harremana izango dute kooperatibarekin.

Hiru. Halaber, bazkide ez-aktiboak, bazkide eszedentziadunak eta bazkide laguntzaileak kko kide izan daitezke, 17. 18. eta 19. artikuluetako zehaztapen eta baldintzen arabera.

Lau. Bazkide-langileen kopurua mugagabea da eta kooperatibarekin duten elkarte-harremana iraupen mugagabekoa edo iraupen jakinekua izan daiteke, lanaldi osoak edo lanaldi partzialekoak. Iraupen jakineko bazkideek ezin izango dute urtean gaintitu indarrean dagoen legediak baimendutako kopurua.

Bost. Bazkide-langile bat onartzeko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

- a) Lan-prestazioa kontratatzeko gaitasuna izatea.
- b) Bere egokitasun profesionala eta elkarte-integrazioa bermatzeko balio izango duen probaldia gaintzea. Artezkari-tza-kontseiluak onarpen-erabaki bakoitzean zehaztuko du probaldiaren iraupena, beti ere kasu arruntetan sei hilabete baino luzeagoa izango ez dena, eta gehienez hemezortzi hilabete baldintza profesional bereziak eskatzen dituzten lanpostuetarako bada. Probaldiak irauten duen bitartean, kooperatibak zein bazkidegaiak, bakoitzak bere kasa eta askatasunez, harremana bertan behera utzi ahal izango dute.
- c) Halaber, izaera mugagabeko bazkide baten onarpenean kooperatibako bazkide izateko gutxieneko iraupen-epea hitzartu ahal izango da. Epea ez da 4 urte baino luzeagoa izango.
- d) Estatutu hauek eta onarpenaren unean indarrean dauden gainontzeko erabakiak formalki onartzea.

8. artikulua. Onarpena

Bat. Bazkideak onartzeari buruzko erabakia artezkari-tza-kontseiluari dagokio, eta soil-soilik ondoko kasuetan uka dezake:

- a) bazkide izateko zehaztu baldintza objektiboak ez betetzea,
- b) bazkide-langile berrien beharra, eta
- c) probaldiari dagozkion txostenak.

Bi. Bazkide gisa onartzeko edo ez onartzeko arrazoia ezin izango da oinarritu helburu sozialarekiko edozein diskriminazio dakarren arrazoiren batean

Hiru. Onartzeko eskaria idatziz egin beharko zaio artezkaritza-kontseiluari, eta haiek hirurogei eguneko epea izango dute gehienez ere erantzuna emateko, eskaria jasotzen dutenetik aurrera kontaturik.

Ez onartzeko erabakiak arrazoitua izan behar du. Epe hori igaro eta ebazpen espresik ematen ez bada, onartu dela ulertuko da.

Lau. Aldi baterako bazkideak egoera horretan hiru urte edo bost urte betetzera iritsi direnean, artezkaritza-kontseiluak indarrean dagoen legediak ezarritakoaren arabera ekingo du.

Bost. Onartzeko eskariari ezetza ematen bazaio, eskatzaileak errekurtsua jarri ahal izango dio errekurtsu-batzordeari hogeitaz eguneko epean ezezko ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera kontaturik.

Errekurtsu-batzordeak ebatziko du errekurtsu hori, hogeita hamar eguneko epean, isilpeko bozketa bidez. Nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.

Sei. Onartzeko eskariaren onarpena errekurritu ahal izango da errekurtsu-batzordean, bazkideen ehuneko hamarrek eskatuta, 20 eguneko epean, erabakia jakitera ematen denetik aurrera kontaturik.

Bazkide izatea etenda geratuko da onarpenaren aurkako errekurtsuak jartzeko epea igaro arte edo, errekurtsua jarrita badago, errekurtsu-batzordeak ebatzi arte. Errekurtsu-batzordeak hogeita hamar eguneko epea izango du ebazpena emateko. Nahitaezkoa izango da interesdunari alde aurretik entzutea.

2. ATALA. BAZKIDEEN BAJAK

9. artikulua. Borondatezko baja

Bat. Bazkideak nahi duenean utzi ahal izango du kooperatiba bere borondatez; horretarako, aurretik abisatu beharko du artezkaritza-kontseilua, idatziz eta hilabeteko aurrerapenez.

Hala ere, aipatutako eskubidea eragotzi gabe, artezkaritza-kontseiluak bazkideari ikasturtea bukatu arte geratzeko eskatu ahalko dio.

Bi. Bazkidea epe-mugarik gabe egon ahal izango da kooperatiban.

Halere, enpresarekiko harremana iraupen jakin batekoa izan daiteke, baldin bazkidea onartzean hala zehazten bada. Horrelakoetan, gainerako bazkideen eskubide eta betebeharrak izango dituzte. Hitzartutako epealdia amaitutakoan, harremana luzatzea adosten ez bada, baja izango da.

Hiru. Borondatezko bajak bidezkoak edo ez bidezkoak izan daitezke.

Lau. Artezkaritza-kontseiluaren eskumena izango da baja bidezkotzat edo ez bidezkotzat jotzea, eta gehienez ere hiru hilabeteko epean formalizatu beharko da, artikulua honen Bat. paragrafoan aipatzen den aurreabisua jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio bazkide interesdunari. Epe hori igarotzen bada administratzaileek jakinarazi gabe, baja justifikatutzat joko da.

Bost. Bidezkoak ez diren borondatezko bajak izango dira:

a) Aurretik abisatzeko epea betetzen ez dutenak eta gutxieneko egonaldian gertatutako bajak, salbu eta kooperatibaren artezkaritza-kontseiluak bestelakorik erabakitzen ez badu kasuaren inguruabarrak aztertu

ostean, hargatik eragotzi gabe bazkideari eskatu ahal izatea kooperatiban nahitaez egin beharreko lan eta zerbitzu guztiak betearaztea eta, hala badagokio, dagozkion kalte-galeren ordainak.

b) Bazkideak kooperatibarenarekin lehian diren jardueretan aritu nahi badu.

Sei. Bidezko borondatezko bajak izango dira:

a) Kooperatibak bere jarduera luzatzen duenean, bat egiten duenean edo zatitzen denean, kooperatiba-mota aldatzen denean edo haren helburu soziala esanguratsuki aldatzen denean, edo kapitalari nahitaezko ekarpen berriak egitea exijitzen denean, baldin eta bazkideak dena delako erabakiaren kontra bozkatu badu, edo, erabaki hori hartu zuen batzar orokorrera joan ez arren, erabaki horrekiko desadostasuna adierazten badu.

b) Transformazio-kasuetan, indarrean dagoen legedian jasotakoa bete beharko da.

c) Aurreko Bost azpiatalean jasotzen ez diren gainontzeko borondatezko bajak.

10. artikulua. Nahitaezko baja

Bat. Bazkideen nahitaezko bajaranako zergatiak hauek dira:

- Indarrean dagoen legediaren edo kooperatibako estatutuen arabera bazkide izateko bete behar diren betekizunak galtzea,
- hitzartutako harreman-epea iraungitzea,
- kapital sozialari egin beharreko derrigorrezko ekarpenari lotutako betebeharrak ez betetzea,
- arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolaketa-, ekoizpen- edo ezinbesteko -arrazoietan oinarrituta artezkaritza-kontseiluak hartutako erabakia,
- legeak ezarri adinean jubilatzea,
- ezintasun iraunkor osoa,
- ezintasun iraunkor absolutua,
- ondoren agertutako trebetasunik eza,
- kanporatzea, eta
- heriotza.

Bi. Nahitaezko baja, interesdunari entzun ondoren, artezkaritza-kontseiluak erabakiko du, ofizioz, beste bazkideren batek edo ukitutako pertsonak berak hura eskatuz gero, indarrean dagoen legediak xedatutako epearen barruan eta ondorioekin.

Interesdunak artezkaritza-kontseiluaren erabakiaren aurreko errekurtsua aurkeztu ahal izango du errekurtsu-batzordean, jakinarazpena jaso eta 30 eguneko epean. Honek errekurtsua jaso eta hurrengo 30 egunetan erabakiko du, interesdunari entzun ondoren.

Hiru. Nahitaezko baja ematea artezkaritza-kontseiluak erabakiko du, interesdunari entzun ondoren, ofizioz edo beste edozein bazkidek edo kaltetuak berak hala eskatuta, estatutu hauen 9-Lau artikuluan xedatutako epean eta ondorioekin, aurreabisuaren jakinarazpenari dagokiona izan ezik.

Eragindakoak artzekaritza-kontseiluaren akordioa aurkaratu ahal izango du errekurtsio-batzordearen aurrean, jakinarazpen-egunetik hasi eta hogeita hamar eguneko epean.

Errekurtsioa errekurtsio-batzordearen aurrean ebatzi beharko da, interesdunari entzunda, errekurtsioa aurkeztu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Epe hori igarotzen bada ebatzi eta jakinarazi gabe, errekurtsioa baietsi egin dela ulertuko da.

Lau. Arzekaritza-kontseiluaren erabakia beteko da behin errekurtsio-batzordearen berrespena jakinarazi ondoren, edo horiei errekurtsioa aurkezteko aurreikusitako epea bukatu ondoren. Nolanahi ere, bazkideari berehala eten ahal izango zaizkio, kautelaz, eskubide eta betebeharrak guztiak, harik eta erabakia nahitaez bete beharrekoa izan arte.

Erabakia betearazlea ez den bitartean, bazkideak batzar orokorrean botoa emateko eskubidea gordeko du.

Bost. Bazkide izateko betekizunak galtzen direnean, nahitaezko baja bidezkoztat joko da, salbu eta galdu badira kooperatibarekiko betebeharrak bete nahi ez izateagatik edo nahitaezko bajaz behar ez bezala baliatu nahi izateagatik.

Bidezkoak ez diren nahitaezko bajen kasuetan, indarrean dagoen legedian ezarritakoa aplikatuko da.

11. artikulua. Bajaren ondorioak eta errekurtsioak

Bat. Bazkide-langile izateari uzteak ekarriko du behin betiko uztea kooperatiban lan egiteari.

Bi. Arzekaritza-kontseiluaren eskumena da bajen kalifikazioa. Arzekaritza-kontseiluaren kalifikazioarekin edo ondorioen inguruko ebazpenekin ados ez dagoen bazkideak 24. artikuluan kanporatze-kasuetarako jasotako errekurtsioak eta bideak erabili ahal izango ditu.

3. ATALA. BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

12. artikulua. Eskubide eta betebeharrak sozialen hastapena

Bat. Onartzeko erabakia hartu den egunetik aurrera izango dute eragina betebeharrak eta eskubide sozialek, baldin eta errekurtsioak aurkezten ez bada. Hala izatekotan, bazkide-izaera bertan behera geratuko da, errekurtsio-batzordeak errekurtsioa erabaki arte.

Bi. Bazkide-langilegaiek bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak berdinak izango dituzte probaldiak irauten duen bitartean, ondoko berezitasunekin:

- ezin izango dira hautatu elkarrearen organoetako karguetarako,
- ez dute kapital sozialari ekarpena egin beharrik izango, ezta sarrera-kuota ordaindu beharrik ere.
- Kooperatibaren emaitzek ez dute eurengan eraginik izango, positiboak izan edo negatiboak izan, horren inguruan langileei aitortu eskubide berdinen kaltetan izan gabe.

13. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bat. Bazkideen betebeharrak hauek dira:

a) Batzar orokorraren eta deitzen dieten gainerako organoen bileretara joatea.

- b) Karguren baterako izendatu badituzte, onartzea, eta lana eraginkortasunez betetzea, salbu eta ez onartzeko bidezko arrazoia dagoen kasuetan.
- c) Kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakien ondorioz sortzen direnak betetzea.
- d) Bazkide-izaeratik ondorioztatzen diren betebeharrak ekonomikoak bere gain hartzea.
- e) Kooperatibaren helburua osatzen duten ekimenetan parte hartzea, horretarako gutxienezko araua kooperatiban aukeran dagoen edozein lan, edozein lantokitan, kooperatiba partaide den beste entitateetan edota kooperatibak lankidetzan jarduten duen entitateetan burutzea izango da, baldin eta, ematen diren bidezko arrazoen baitan, artezkaritza-kontseiluak betebeharrak hori betetzetik libre uzten ez badu.
- f) Kooperatibaren barruko giro sozial egokia eta errespetuzko elkarbizitza bultzatzea.
- g) Ez egitea kooperatibaren helburu sozialarekin lehian dagoen jarduerarik, eta ez aritzea lankidetzan horrelako jarduerak egiten dituztenekin; salbu eta artezkaritza-kontseiluak espresuki horretarako baimena ematen duen kasuetan.
- h) Galerak beren gain hartzea, batzar orokorrak erabakitako kopuruan.
- i) Aurreikusitako baldintzetan egitea kapital sozialari egin behar dizkion ekarpenak.
- j) Isilpean gordetzea kooperatibaren jarduerak eta datuak, baldin eta zabalduz gero haren interes sozialak kaltetzen badira.
- k) Kooperatibaren izen ona zikintzen duten adierazpen publikorik ez egitea.
- l) Legez ezarritako adinean jubilatzea.
- m) Legeen eta estatutuen ondorioz sortzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

Bi. Betebeharrak sozial hauek lege eta estatutu-arauei, eta kooperatibaren organoek balioz hartutako erabakiei jarraikiz beteko dira.

14. artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Bazkideen eskubideak ondokoak dira:

- a) Batzar orokorrean edo batzarkide diren gainerako organoetan proposamenak egitea eta hartzen diren erabaki guztietan parte hartzea hitzez eta botoa emanez.
- b) Kooperatibako organoetako karguetarako kideak hautatzea, eta kargu horietarako hautatuak izatea.
- c) Aldi baterako harreman sozietarioa iraungi arte, edo jubilatuta arte, lana kooperatiban garatzea eta dagokien ordainsaria jasotzea.
- d) Kooperatibaren jardura guztietan parte hartzea, diskriminaziorik gabe.
- e) Barne-antolamendu juridikoaren aldaketak sustatzea estatutuen eremuaren barruan.
- f) Ekarpenen interesak ezarritako kopuru eta moduan jasotzea. Interesa ezin izango da diruaren legeko interesa baino handiagoa izan.

- g) Eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia jasotzea, hurrengo artikuluan ezarritakoaren baitan.
- h) Bidezkoa bada, sozietatearen kapitalera egindako ekarpenak eguneratzea eta itzultzea, baita, hala badagokio, sortutako interesak jasotzea ere.
- i) Lege eta estatutuen ondoriozko gainerakoak.

Bi. Eskubide sozial hauek berdinak dira bazkide guztientzat.

Beren eskubideez baliatzean, bazkideek kontuan izan behar dute zer dioten legeek eta estatutuek nahiz kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiek.

15. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea

Bat. Bazkide guztien eskubideak dira:

- a) Kooperatibaren estatutuen kopia bat eskatu ahal izango du, baita, hala badagokio, barne-araubidearen erregelamenduarena ere.
 - b) Kooperatibako bazkideen erregistro-liburua eta batzar orokorraren akta-liburua aztertzeko eskubidea izango du. Bazkideak hala eskatzen badu, artezkaritza-kontseiluak batzar orokorraren aktaren eta han hartutako erabakien kopia ziurtatuak eman beharko dizkio, baita bazkide-erregistroko liburuan egindako inskripzioen ziurtagiria ere, betiere aurretik eskaera arrazoitua egiten badu.
 - c) Artezkaritza-kontseiluak hartutako erabakien kopia ziurtatua eskatu ahal izango du, erabaki horiek bazkideari eragiten badiote.
 - d) Kooperatibarekiko duen ekonomia-egoeraren berri jaso ahal izango du. Informazio hori artezkaritza-kontseiluak eman beharko dio, hilabeteko epean gehienez ere, eskatzen denetik aurrera kontaturik.
 - e) Edozein bazkidek argibide edo txostenak eskatu ahal izango dizkio artezkaritza-kontseiluari, idatziz, kooperatibaren funtzionamenduaren edo emaitzen berri izateko. Informazio hori idatzizko eskaria aurkeztu eta hamabost egun igaro ondorengo batzar orokorraren lehenengo bileran eman beharko zaio interesdunari.
 - f) Batzar orokorraren gai-zerrendaren arabera ekitaldiko kontuez edo proposamen ekonomiko bati buruz eztabaidatu behar bada, kooperatibaren egoitzan bazkideen eskura jarriko dira urteko kontuen berri ematen duten agiriak, emaitzak ezartzeko proposamenak eta, hala badagokio, artezkaritza-kontseiluak egindako kudeaketa-txostena eta kontuen kanpoko kontu-ikuskatzailearen txostena, zeinak deialdiak dirauen bitartean egongo baitira bazkideen esku, aztertu ahal izan ditzaten.
- Epe horretan zehar, bazkideek agiri ekonomiko horiei buruzko azalpenak eta argibideak eskatu ahal izango dituzte, idatziz eta batzar orokorra izan baino bost egun lehenago gutxienez, eta batzarrean emango zaie erantzuna.
- g) Egoitza sozialean, eta deialdi epearen barruan, kontu ikuskaritzaren kudeaketa txostena aztertzea.

Bi. Aurreko apartatuan ezarritako eskubidea eragotzi gabe, sozietateko boto guztien ehuneko hamar gutxienez ordezkatzan duten bazkideek edozein unetan eskatu ahal izango dute, idatziz, beharrezko iruditzen zaien informazio guztia. Artezkaritza-kontseiluak idatziz eman beharko du eskatu zaien informazioa, hogeita hamar eguneko gehieneko epean.

Hiru. Edozein kasutan, artezkaritza-kontseiluak kooperatibaren gorabehera sozioekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei edo haien ordezkari, hiru hilean behin gutxienez, horretarako egokien iruditzen zaien bidea erabiliz.

16. artikulua. Informazio eskubidearen mugak eta bermeak

Bat. Artezkaritza-kontseiluak uko egin diezaioke informazioa emateari, arrazoituta, baldin eta eskaera ausartegia edo oztopagarria bada, edo informazio hori emateak arrisku larrian jar baditzake kooperatibaren interes legítimoak. Ez da halako salbuespenik izango, baldin eta ukatzen den informazioa batzar orokorrean eman beharrekoa bada eta bertaratutako eta ordezkaturako boto guztien erdia baino gehiago azaltzen bada eskaturako informazio hori ematearen alde. Beste kasu guztietan ere ez da halako salbuespenik izango hala erabakitzen badu errekurtsio-batzordeak eskaria egiten duten bazkideek errekurtsioa jarri ondoren.

Bi. Dena den, eskatzaileek aurkaratu ahal izango dute artezkaritza-kontseiluaren ezetza, indarrean dagoen legediak ezarritako prozeduraren arabera. Eskatzaileek, gainera, Prozedura Zibilaren Legearen 256. artikuluan aurreikusitako prozedurara jo ahal izango dute bere 2. atalean ezarritako kasuetan.

Hiru. Berme-sistema hau ezartzen da:

a) Informazioa eskatzen duten bazkideek informazio-eskaera oro sinatu beharko dute, behar bezala identifikatuta eta eskaeraren azalpen arrazoitua emanda.

b) Gutxienez bazkideen ehuneko hogeik izenpetzen badu informazio-eskaera, artezkaritza-kontseiluaren ezezko erabakiak bi hereneko gehiengo kualifikatua eskatuko du.

Artezkaritza-kontseiluak informazioa ukatzeko hartutako erabakia errekurtsio-batzordean errekurritu ahal izango da, erabakia jakinarazi eta hogeitun eguneko epean.

Hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko du errekurtsio-batzordeak, isilpeko bozketa bidez.

Nahitaezkoa izango da interesdunari edo interesdunei alde aurretik entzutea.

Lau. Oro har, bazkideen informaziorako eskubidea errespetatzeko berme hauek ezartzen dira, indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzetan:

a) Artezkaritza-kontseilua da bazkideen informaziorako eskubidea bermatzeko organo eskumenduna.

b) Artezkaritza-kontseiluak informazioa emateari uko egin diezaioke, arrazoituta, soilik artikulua honen Bat atalean aurreikusitako kasuetan eta atal horretan aurreikusitako salbuespenarekin.

c) Indarrean dagoen legediak xedaturako mugak baino ez ditu izango bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko.

d) Kooperatibak bere bazkideekin harremanetan egoteko erabilitako formatu, programa edo lengoia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.

e) Eskaturako informazioa formatu elektronikoan bidali ahal izango da.

4. ATALA. BAZKIDE EZ-AKTIBOAK, BAZKIDE ESZEDENTZIADUNAK ETA BAZKIDE-LAGUNTZAILEAK.

17. artikulua. Bazkide ez-aktiboak

Gutxienez 2 urteko antzinatasuna duten bazkideek, bidezko edozein arrazoi tarteko kooperatiban lan egiteari behin betiko uzten diotenean, aukera izango dute bazkide-izaerari eusteko, ondoko arau hauei atxikiz:

- a) Lan-baja gauzatu ondoren artezkaritza-kontseiluari eskatu beharko diote, eta honek bere borondatearen arabera erabakiko du.
- b) Artezkaritza-kontseiluko kide izan ahal dira.
- c) Kooperatibaren ibileraren berri jaso eta batzar nagusian esku hartzeko eskubidea izango dute. Guztira izango dituzten botoen kopurua ezin izango da bazkide-langileen botoen bostena baino gehiago izan.
- d) Kapital sozialari egindako ekarpena gutxitu ahal izango dute, baldin eta ez bada 46.Bi artikuluan ezarritako gutxieneko derrigorrezko ekarpenaren azpitik geratzen.
- e) Gainontzeko eskubide eta betebeharrak jardunean dauden kideei ezarritako irizpide berdinekin gauzatuko dira, nahiz eta, jardun-ezaren arrazoia jubilazioa denean, ekarpenaren interesa, diruaren legezko interesa gainditu gabe, gainontzekoena baino handiagoa izan daitekeen.

18. artikulua. Bazkide eszedentziadunak

Bazkide eszedentziadunak izango dira beren jarduera aldi baterako utzi duten bazkideak.

- a) Eszedentzia-eskariak eta onartzeko epeak, baldintzak... barne-araubideko erreglamenduan jasotakoaren arabera gauzatuko dira.
- b) Bazkide eszedentziadunen eskubide eta betebeharrak jardunean dauden kideei ezarritako irizpide berdinekin gauzatuko dira, lanarekin batera doazen diru-eskubide zein betebeharrak izan ezik.

19. artikulua. Bazkide-laguntzaileak

Bat. Bazkide-laguntzaileak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, kooperatibaren helburu soziala bete-betean aurrera eramaterik ez badute ere helburua lortzen lagun dezaketanak.

Bi. Aldi baterako edo denbora-mugarik gabekoak izan daitezkeen bazkide laguntzaileak onartzeari buruzko erabakia artezkaritza-kontseiluari dagokio. Erabakietan elkarlan-baldintzak eta onartutakoen gainontzeko eskubide eta betebeharrak zehatzak jasoko dira. Hala ere, 16. eta 17. artikuluetan zerrendatutako betebeharrak eta eskubideak izango dituzte, baldin eta bereziekin edo hitzartutako elkarlanarekin bateragarriak badira.

Hiru. Mota honetako kide guztien botoen batuketak, sozietate kooperatiboak ez badira behintzat, ezin izango du gainditu boto guztien herena, ez batzar nagusian, ezta artezkaritza-kontseiluan ere.

5. ATALA. DIZIPLINA-ARAUAK

20. artikulua. Falta-motak

Bazkideek burutu ditzaketan diziplina-urraketak ondoko bi falta motetan sailkatzen dira:

a) Falta sozialak: ekintzez edo ez-egitez kooperatibaren instituzio-antolamenduari lotutakoak dira. Estatutu hauetan arautzen dira.

b) Lan egitean gerta daitezkeen faltak, ekintzez edo ez-egitez lan-jarduerarekin lotutakoak. Falta-mota hauek, zehapenak eta zehapen-prozedurak batzar nagusiak arautuko ditu eta barne-araubideko erregelamenduan jasoko dira.

21. artikulua. Falta sozialak

Bat. Falta sozialak arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke, euren garrantzia, ondorioak, eragin ekonomikoak edo sozialak aintzat hartuta.

Bi. Falta arinak dira:

- Kooperatiba behar bezala antolatu eta garatzeko ezarritako arauak ez betetzea.
- Estatutu eta araudietako aginduak eta funtzionamendu-arauak desenkusaezinezko ezjakintasunagatik ez betetzea, behin baino ez bada ere.
- Deituak izan diren egintza sozialetara eta bereziki batzar nagusira ez joatea, bidezko arrazoik izan gabe.

Hiru. Falta astunak dira:

- Urtebetean baino gutxiagoan falta arinak errepikatzea.
- Kargu sozialetarako hautatuak izan eta ez onartzea, edo kargua uztea, artezkaritza-kontseiluaren iritziz bidezko arrazoirik gabe, edo ardurarik gabe aritzea hautatua izan den karguetan.
- Estatutu hauetan aurrikusitako betebeharrak ekonomikoak epeen barruan ez betetzea.

Lau. Falta oso astunak dira:

- Urtebete baino gutxiagoko epean falta astunak errepikatzea.
- Nabarmenki urratzea organo eskudunek balioz onartutako erabakiak.
- Bere izaeragatik kooperatibaren interes materialak zein izen ona kaltetu ditzaketen ekinbideak edo ez-egiteak, hala nola jarduera lehiakideak, ekarpen edo prestazioetan iruzurra, eta erakundearen administratzaile, ordezkari edo antzekoenganako begirune-eza.
- Artezkaritza-kontseiluari dagozkion eskumenak bere egitea.
- Kooperatibaren postaren edo isilpeko dokumentuen isilpekotasuna urratzea edo pertsona arrotzei kooperatibaren isilpeko datuen berri ematea.
- Kooperatibako oinarri sozialen aurkako jarrera sistematikoa izatea eta proselitismo publikoa egitea.
- 16. artikuluan aurrikusi betebeharren urraketa larria edo errepikakorra.

22. artikulua. Falta sozialen ondoriozko zehapenak

Bat. Falta arinak:

- Idatzizko ohartarazpena.
- Urtebetera arteko boto-eskubidea kentzea.
- Diru-isuna. Une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpenaren % 10, gehienez.

Bi. Falta astunak:

- Bat azpiatalean azaldutako guztiak.
- Idatzizko jakinarazpena. Artezkaritza-kontseiluak hala erabakiz gero, publikoa izango da.
- Bi urtera arteko boto-eskubidea kentzea.
- Arduretarako aukeratua izateko ezgaitzea, gehienez jarraian burututako hurrengo bi hauteskundeetan.
- Diru-isuna. Une bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpenaren % 25, gehienez.

Hiru. Falta oso astunak :

- Bat eta Bi azpiataletan azaldutako guztiak.
- Eskubide sozial batzuk edo guztiak kentzea hiru urtera arteko epean.
- Diru-isuna. Unean indarrean dagoen gutxieneko derrigorrezko ekarpenaren % 50, gehienez.
- Kanporatzea.

23. artikulua. Falta sozialen ondoriozko zehapen-prozedura

Bat. Falta sozialak direla-eta zehapenak ezartzeko eskumena artezkaritza-kontseiluaren eskuduntza da, aldeztatik dagokion espedientea irekita.

Falten inguruko espedientearen agiri guztien bi ale egongo dira, eta bat kooperatiban artxibatuko da.

Bi. Artezkaritza-kontseiluak izendatuko ditu, bere kideen artean, kargu-plegua osatuko duten instruktorea edo instruktoreak, gehienez ere hiru. Instruktoreak edo instruktoreek inkulpatuari faltaren behin-behineko kalifikazioa, dagokion zehapen-proposamena eta deskargua aurkezteko epea jakinaraziko dizkiote. Epea ez da izango jakinarazpena jaso eta 10 egun baino laburragoa.

Deskargu-plegua aurkeztea bazkidearen eskumena da, eta artezkaritza-kontseiluari zuzenduko zaio. Honek, interesdunari entzun ondoren, erabakia hartuko du, faltaren behin betiko kalifikazioa eta zehapena ezarriz.

Hiru. Falta astunak eta oso astunak direla-eta jasotako zehapenen aurkako errekurtsioak errekurtsio-batzordeari jarri ahal izango zaizkio, hogeita hamar eguneko epean, zehapenaren jakinarazpena egiten denetik aurrera kontaturik. Errekurtsio-batzordearen berrespena aurkaratu ahal izango da indarrean dagoen legedian ezarritako izapidetaren arabera, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik aurrera kontaturik.

Lau. Falta arinak hilabeteko epean preskribatzen dira; astunak, bi hilabeteko epean; eta oso astunak, hiru hilabeteko epean.

Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen. Arau-hauste jarraituak edo iraunkorrak badira, jokabide arau-hauslea amaitzen den unetik hasiko da epea kontatzean.

Zehapen-izaerako prozedura bat hasteak, interesduna haren jakitun dela, etengo du preskripzioa, eta berriz ekingo litzaioke preskripzio-epeari zehapen-espedientea geldituta balego, ustezko erantzuleari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabete baino gehiagotan.

Bost. Zehapen guztiak indarrean jarriko dira errekurtsua aurkezteko epea erabili gabe iraungi denean edo behin betiko erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

24. artikulua. Kanporatzea

Bat. Artekazkaritza-kontseiluak bazkide bat kanporatzea erabaki dezake soilik estatutuetan eta jasotako falta oso astunagatik, horretarako aurreko artikulua Bi azpiatalean ezarritakoaren arabera hasitako espedientearen bidez eta interesdunari aurretik entzun ondoren.

Bi. Artekazkaritza-kontseiluak bazkideari idatziz jakinaraziko dio erabakia, hartu eta hurrengo hamabost egunetan.

Interesdunak erabaki horren aurkako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio errekurtsu-batzordeari hogeita hamar eguneko epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera kontaturik.

Errekurtsu-batzordeari aurkeztutako errekurtsua hiru hilabeteko epean ebatzi beharko da, gehienez, aurkeztu denetik aurrera kontaturik, interesdunari aurretik entzun ondoren. Epe hori igaro eta ezer erabaki edo jakinarazten ez bada, errekurtsua onartu dela ulertuko da.

Hiru. Errekurtsu-batzordearen berrespenaren jakinarazpena jasotzen denetik edo haiei errekurtsua jartzeko epea amaitzen denetik aurrera izango da betearazlea kanporatze-erabakia.

Lau. Nahiz eta kanporatzeko erabaki horrek ez duen indarririk izango dagokion organoak berretsi arte edo errekurtsua aurkezteko epea amaitu arte, kooperatibak enplegurik gabe utzi ahal izango du bazkide-langilea, zeinak bere eskubidea gordeko baitu, behin-behinean, dagozkion lan-aurrerakinak lanean jarraituko balu bezala jasotzeko.

Bost. Errekurtsu-batzordeak kanporatze-erabakia berretsi ondoren, erabakiaren aurka jo daiteke, indarrean dagoen legedian aipatzen den auzibidetik, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen denetik aurrera kontaturik.

Sei. Lan egitean gerta daitezkeen faltetan oinarritutako kanporatzea batzar nagusiak aurrikusi eta barne-araubideko erregelamenduan jasotako falta oso astunetan baino ezin izango da gertatu. Kanporatua izan den bazkideak errekurtsua aurkeztu ahal izango du, behin barne-errekurtsuak agortu eta gero, Lan Epaitegian. Kasu hauetan, kanporatze-erabakia irazpen-gutunaren parekoa da.

6. ATALA. LAN-ARAUBIDEA

25. artikulua. Oinarrizko elementuak

Bat. Lanaren antolaketari eta ordainsariei dagokienez, ondokoak dira:

- a) Artekazkaritza-kontseiluari dagokio, edo artekazkaritza-kontseiluak espreski hala erabakita bada, delegazioz, gerentziari, lanaren antolaketaren eta diziplinaren ezarpena zein gauzaren praktikoa.
- b) Kooperatibak bazkide-langileak erabiliko ditu lehentasunez eta, inoren konturako langileak kontratatu behar izanez gero, horien kopuruak ez du legeak ezarritakoa gaindituko.
- c) Bazkide-langileek hilero jasoko dituzte lan-aurrerakinak. Aurrerakin horiek inoiz ez dira izango, urte osoko kopuruan, lanbide arteko gutxieneko soldata baino eskasagoak. Era berean, lan-aurrerakinak (pentsio-fondoetan egindako ekarpenak barne) ezin izango dira inoiz izan arloko hitzarmenak

pareko lan eta sailkapen profesionaleko soldatapeko langileei egokitutakoaren % 150 baino gehiago. Lan-aurrerakinen gehieneko kopuruaren irizpidea inoren konturako langileei ere egokituko zaie.

d) Lan-aurrerakinak kooperatibaren emaitzen kontura ezartzen diren aldikako jasoketak dira eta, beraz, ez dute soldata-izaera. Ondorioz, horien zenbatekoa, azken batean, emaitzen arabera izango da.

e) Batzar orokorrak barne-araubideko erreglamentua onartuko du. Bertan erregulatuko dira lanaren antolaketa, lanaldiak, asteko atsedena, jaiegunak, oporrak, baimenak, lanpostuen sailkapena, mugigarritasun funtzionala eta geografikoa, eszedentziak, lan-harreman kooperatiboa eten edo azkentzeko arrazoiak eta, oro har, bazkide-langileak egiten duen lanarekin zerikusia duten eskubide nahiz betebeharrak buruzko gaiak.

f) Barne-araubideko erreglamentuan jasotzen ez direnak artezkaritza-kontseiluak zehaztuko ditu.

Bi. Pertsona fisikoei dagokien fiskalitatea bazkide-langileen bizkar izango da, eta kooperatibak inoiz ezin izango du subrogatu.

Hiru. Bazkide-langileak kooperatibarekin duen harremana sozietate-harremana da, ez lan-harremana.

26. artikulua. Gizarte Segurantzza

Probaldian dauden zein finko diren bazkide-langileen Gizarte Segurantzaren babesari dagokionez, kooperatibak araubide orokorra hautatu du.

27. artikulua. Bazkide-langilearen edo lan-bazkidearen etetea edo nahitaezko baja, arrazoi ekonomiko edo teknikoak, edo antolakuntzako, ekoizpeneko edo ezinbesteko arrazoiak direla-eta.

Bat. Arrazoi ekonomiko edo teknikoak, edo antolakuntzako, ekoizpeneko edo ezinbesteko arrazoiak gertatzen badira, lan-elkartuko kooperatibek lan egiteko betebeharrak eta eskubidea aldi baterako eten ahal izango diote bazkide-langileari edo lan-bazkideari; aldi horretan, bazkide horiek

lanarekin batera doazen diru-eskubide zein betebeharrak galduko dituzte, eta bazkide izateagatik dagozkien gainerako eskubideak eta betebeharrak gordeko.

Horretarako, artezkaritza-kontseiluak deklaratu beharko du adierazitako arrazoi horietakoren bat dela-eta etenaldi-egoeran geratuko direla kooperatibako bazkide-langile edo lan-bazkide guztiak edo haietako batzuk, ondo zehaztuz zenbat denboratan geratuko diren lanik gabe; orobat adierazi beharko du,

zehatz-mehatz eta behar bezala justifikatuta, zein diren egoera horretan geratzen diren bazkide-langileak.

Etenaldi-egoeran egoteko arrazoiak desagertzen direnean, bazkide-langileak bere eskubide eta betebeharrak guztiak berreskuratuko ditu.

Bi. Kooperatibaren bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jar dezaketen arrazoi larriak direla eta –ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak, ekoizpenekoak edo ezinbestekoak– behin betiko murriztu behar bada lanpostu-kopuru orokorra edo lanbide-kolektibo edo -talde jakin batzuen lanpostu-kopuru orokorra, artezkaritza-kontseiluak erabaki beharko du zenbat bazkide-langileri eman behar zaion baja kooperatiban, eta nor diren bazkide horiek. Kasu horietan, baja nahitaezkoztat eta bidezkoztat joko da, eta baja hartu behar izan duten bazkideek eskubidea izango dute berehala

itzul diezazkieten kapital sozialari egin dizkieten borondatezko ekarpenak eta, gehienez, bi urteko epean itzul diezazkieten hileroko egin dituzten nahitaezko ekarpenak. Gainera, baja hartu eta hurrengo bi urteetan, kooperatibara itzultzeko lehentasunezko eskubidea izango dute, baldin eta betetzen zuten lanpostuaren antzeko beste lanposturik sortzen bada. Nolanahi ere,

kooperatibak objektiba daitezkeen baliabide ekonomikoak dituenen, nahitaezko ekarpenak arribideko ekitaldi ekonomikoan itzuli beharko ditu.

Kooperatiba uzten duten bazkideak 11/2019 legearen 60.1.b artikuluan xedatutako ekarpenen titularrak badira eta kooperatibak ez badu erabakitzen ekarpen horiek berehala itzultzea, kooperatiban segitzen duten bazkide guztiek berehala eskuratu beharko dituzte ekarpen horiek, batzar orokorrak erabakitzen dituen baldintzetan.

III. KAPITULUA. KOOPERATIBAKO ORGANOAK

28. artikulua. Organo sozialak

Bat. Kooperatibak ondoko organo sozialak izango ditu:

- Batzar orokorra
- Administrazio-organoa: artezkaritza-kontseilua
- Zaintza-batzordea
- Errekurtso-batzordea

Kooperatibako organoek indarrean dagoen legediaren arabera jardungo dute; legearen osagarri izango dira sozietatearen estatutuak, barne-araubidearen erregelamendua edo kooperatibaren funtzionamendua behar bezala antolatzeke hartzen den edozein erabaki baliodun.

Organo sozialetako ordezkariak aukeratzean, ahaleginak egingo dira emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan dadin organo guztietan. Halaber, genero-berdintasuneko neurriak ezarriko dira, eta, bereziki, bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeari begirakoak.

1. ATALA. BATZAR OROKORRA

29. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak

Bat. Kooperatibako batzar orokorra bazkideen bilkura da, bere eskumeneko arloez eztabaidatu eta erabakiak hartzeko sortua.

Bazkide guztiek bete behar dituzte batzar orokorraren erabakiak.

Bi. Batzar orokorrak baino ez du izango honako erabaki hauek hartzeko eskumena:

- a) Isilpeko boto bidez honako hauek izendatzea eta ezeztatzea: administratzaileak, zaintza-batzordeko kideak, kitatzaileak eta errekurtso-batzordeko kideak. Era berean, erantzukizun-akzioa egikaritu ahal izango du horien guztien aurka.
- b) Kontu-auditoreak izendatzea eta ezeztatzea, bakarrik hartarako arrazoi zuzen bat dagoenean.
- c) Sozietatearen kudeaketa aztertzea, eta urteko kontuak eta soberakinen banaketa edo galera-egozpena onartzea.
- d) Nahitaezko beste ekarpen batzuk ezartzea, eta zehaztea zer interes sortuko dituzten kapitalari egindako ekarpenek, eta zein diren bazkide bihurtzeko edo aldian-aldian egin beharreko ekarpenak.
- e) Obligazioak, partaidetza-tituluak eta partaidetza bereziak, edo indarrean dagoen legedian aurreikusitako beste finantzaketa-mota batzuk jaulkitzea.
- f) Sozietatearen estatutuak aldatzea.
- g) Bigarren edo maila handiagoko kooperatibak, kooperatiba-taldeak eta antzeko beste entitate batzuk sortzea, bai eta horietara atxikitzea edo horietatik bereiztea ere.
- h) Sozietatearen bat-egitea, zatitzea, transformatzea eta desegitea.

- i) Estatutuen arabera kooperatibaren ekonomiaren, antolaketaren eta funtzioen egituretan oinarrizko aldaketak eragin ditzaketen beste erabaki guztiak hartzea.
- j) Kooperatibaren barne-erregelamendua onartu edo aldatzea.
- k) Legeak agindutako beste guztiak.

Hiru. Ezin izango dira delegatu legearen arabera batzar orokorraren erabakia eskatzen duten egintzei buruzko eskumenak, salbu eta artikulua honen 2.g atalean adierazten den kooperatiba-integratioko prozesuetarako aurreikusitakoak.

Lau. Era berean, batzar orokorrak kooperatibarentzat interesgarriak diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, baina behartze-indarreko erabakiak hartu, lege honen arabera sozietateko beste organo baten eskumen eskusiboa ez diren arloetan bakarrik hartuko ditu.

30. artikulua. Batzar orokor motak

Bat. Batzar orokorrak ohikoak edo bereziak izango dira.

Bi. Ohiko batzar orokorraren helburu nagusia da sozietatearen kudeaketa aztertzea, urteroko kontuak onartzea, beharrezkoa bada, eta, hala badagokio, soberakinak banatzeari edo galerak egozteari buruz ebaztea. Bestalde, gainerendak batzarraren eskumenekoa den beste edozein gai gehitu ahal izango du.

Hiru. Gainerako batzar orokor guztiak bereziak izango dira.

31. artikulua. Deialdia

Bat. Batzar orokorrerako deia artezkaritza-kontseiluak egingo du.

Bi. Ohiko batzar orokorrerako deia sozietatearen ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen egin beharko da, nahitaez. Epe hori igarota, eta ez bada ez batzarrik ez deialdirik egiten, edozein bazkidek, notario bidez edo bestelako edozein bide sinesgarri erabiliz, artezkaritza-kontseiluari errekeritu ahal izango dio batzarrerako deia egin dezala. Errekerimendua egin, eta hortik aurrerako hamabost eguneko epean administratzaileek deirik egiten ez badute, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio sozietatearen egoitza dagoen lekuko merkataritzako epaitegiari, zeinak deia egin, eta erabakiko baitu nor izango den batzarreko burua.

Batzar orokor hori, epez kanpo deitutakoa izanda ere, ohikoa izango da.

Hiru. Batzar orokor berezia edozein unetan bilduko da, artezkaritza-kontseiluak bere aldetik eskatuta, zaintza-batzordeak eskatuta edo boto guztien ehuneko hogeitaz gutxienez ordezkatzeko eskatuta.

Horretarako, artezkaritza-kontseiluari agiri sinesgarri baten bidez egin beharko zaio eskaria, eztabaidarako gaien eta proposamenen gai-zerrenda jasotzen duena. Eskaria jaso eta hortik aurrerako hogeita hamar eguneko epean ez bada egiten batzar orokorra biltzeko deirik, epailearen bidezko deia eskatu ahal izango da, aurreko zenbakian erabakitako moduan.

Lau. Batzar orokorra biltzeko deialdia sozietatearen egoitzan eta kooperatibak bere jardura garatzen duen leku guztietan jarriko da jendaurrean modu nabarmenean; era berean, kooperatibaren web-orri korporatiboan eta barne-sarean (intraneten) argitaratuko da, eta bazkide guztiei horren berri emango zaie norbere e-posta helbidean.

Hau izango da deialdia jendaurrean jartzeko epea: bilera egin baino hamar egun lehenago gutxienez eta hirurogei egun lehenago gehienez.

Deialdian zehaztu beharko da, gutxienez, zein egunetan, zein ordutan eta non izango den bilera, bai lehenengo eta baita bigarren deialdian ere, eta bion artean ordu-erdiko tartea utzi beharko da gutxienez. Horretaz gain, garbi eta zehaztasunez eta behar bezala sailkatuta jaso beharko dira gai-zerrenda osatzen duten gaiak.

Datu horiez gainera, orobat adieraziko da bazkideek eskubidea dutela gai-zerrendari buruzko dokumentu guztiak sozietatearen egoitzan aztertzeko, baita sozietatearen intraneten (barne-sarean) ere.

Bost. Deialdia egin eta hurrengo bost egunak igaro baino lehen, boto guztien ehuneko hamar baino gehiago ordezkatzeko duten bazkideek gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izango diote artezkaritza-kontseiluari, idatziz. Administratzaileek gai horiek kontuan hartu eta gai-zerrenda berria legeak eskatzen duen bezala argitaratu beharko dute, batzar orokorra izan baino lau egun lehenago gutxienez. Batzarraren bilera-eguna ezin izango da inola ere atzeratu.

32. artikulua. Batzar orokorraren funtzionamendua

Bat. Batzar orokorra, kooperatibak egoitza soziala duen herrian burutuko da, ez bada egoitza egokirik ez dagoela. Kasu horretan, artezkaritza-kontseiluak beste leku bat izendatuko luke, ahalik eta hurbilena. Hala ere, kooperatibak EAEko hiru lurralde historikoetan edo-eta Nafarroan zehar sakabanatutako ehun eta berrogeita hamar bazkide eta hamar euskaltegi baino gehiago baditu, artezkaritza-kontseiluak batzar orokorra biltzeko beste lurralde historiko bateko herri bat aukeratu ahal izango du, ahalik eta bazkide gehienak bertaratzea zein lurralde edota herri horretan kooperatibaren presentzia indartzea erraztearren.

Bi. Batzar orokorra baliozkoa izango da, lehen deialdian, baldin eta bildutako edo ordezkaturako bazkideek botoen gehiengoa badute; eta bigarren deialdian, baldin eta bildutakoak edo ordezkaturakoak botoen ehuneko hamarrera iristen badira edo ehun bitora iristen badira. Nahikoa izango da quorum hori bileraren hasieran lortzea.

Hiru. Batzar orokorrerako deialdia egin zen datarako, gutxienez, bazkide zirenek izango dute batzarrera joateko eskubidea.

Lau. Bazkideren batek joanezina izango balu, beste batek ordezkatu ahal izango du; horretarako, ordezkari gisa parte hartzen duen bazkideak idatzizko baimen bat izan beharko du batzar bakoitzeko. Batzar unibertsalaren kasuan, aurreikusitako gai-zerrenda ere jaso beharko da ordezkari gisa parte hartzen dela egiaztatzen den idatzian.

Bazkideek ezin izango dute, bakoitzak bereaz gainera, beste bi baino gehiago ordezkatu. Ordezkaritza ezeztatu ahal izango da. Ordezkaritza beste norbaiti eman dion pertsona batzar orokorrera joateak ordezkari ezeztatzeko indarra izango du.

Zaintza-batzordeko kideek erabakiko dute ordezkari-idatzien balioa eta nahikotasuna.

Bost. Batzar orokorreko mahaiburua (lehendakaria) koordinatzaile nagusia izango da; hori ezin bada izan, artezkaritza-kontseiluko lehendakaria izango da, eta azken hori ere ezin bada izan, batzarrak hautatutako bazkidea izango da.

Batzarreko mahaiburuaren egitekoak izango dira eztabaidak bideratu, batzarra behar bezala burutu dadin zaindu eta legezko izapideak betearaztea.

Lehendakariak idazkari baten laguntza izango du, eta hura batzarrera bildu diren bazkideek izendatuko dute.

Sei. Gai-zerrendan jaso gabeko gaiiei buruzko erabakiek ez dute baliorik izango, indarrean dagoen legedian dena delako erabakia hartzea espresuki baimentzen den kasuan izan ezik.

Dena den, garaia iritsitakoan, edozein bazkidek izango du aukera ahoz proposamenak egiteko edota iradokizun konkretuak egiteko, baina batzar nagusiaren onespina beharko balute, boto sozialen % 20k alde egon beharko luke eta beste deialdi bat egin beharko da hurrengo batzar baterako, bertan proposamenok tratatzeko.

Zazpi. Bozketa guztiak isilpekoak izango dira.

Zortzi. Administratzaileek batzar orokorretara joan beharra izango dute. Eta zuzendari, gerente eta teknikoak, bazkide izan ez arren, ahotsa bai baina boto gabe, artezkaritza-kontseiluak espreski deitzen dituenean joango dira.

Batzar orokorrak beste edozein lagunen presentzia ere baimendu dezake.

33. artikulua. Batzar orokorraren akta

Bat. Batzar orokorrean hartutako erabakiak aktan jasoko dira. Akta batzarraren idazkariak idatziko du eta, ondoren, akta-liburuan jasoko, eta gutxienez, indarrean dagoen legedian azaltzen direnak jaso beharko ditu.

Bi. Akta, batzarraren lehendakariak eta batzarrak berak izendatutako bi kidek onartuko dute, batzarraren idazkariarekin batera sinatuta, hamabost eguneko epean.

Hiru. Batzar orokorrera joandako edozeinek eskubidea izango du aktaren edo hartutako erabakien testu osoaren ziurtapenak eskatzeko. Ziurtagiria egiten den egunean idazkari denak emango ditu ziurtapenok, lehendakariaren oniritziarekin.

Lau. Erregistroan inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira, hogeita hamar eguneko epean, akta onartu eta hurrengo egunetik aurrera kontaturik.

Bost. Erabakietan esaten direnek onartzen diren unetik aurrera izango dituzte ondorioak.

34. artikulua. Boto-eskubidea

Bat. Bazkide bakoitzak, pertsona fisiko zein juridiko izan, boto bat izango du.

Bi. Bazkide-laguntzaileen, bazkide ez-aktiboen, bazkide eszedentziadunen eta iraupen jakinako bazkideen boto-kopurua ezin izango da inoiz ere kooperatibako boto guztien erdia izatera iritsi.

Hiru. Bazkideak ezingo du boto-eskubidea erabili interes-gatazka sortzen den hurrengo kasuetan:

- Hartu beharreko erabakia zuzenean edota soil-soilik berari dagokionean, gehiengoaren parte ez bada.
- Kooperatibak egikaritutako erantzukizun-ekintzaren subjektu denean.

35. artikulua. Gehiengoak

Bat. Batzar orokorrean erabakiak hartzeko, baliozkotasunez emandako botoen erdia baino gehiago beharko da. Ondorio horietarako, ez dira zenbatuko ez boto zuriak ez abstentzioak. Dena den, salbuespen izango dira

indarrean dagoen legedian edo estatutuetan gehiengo indartuak eskatzen diren kasuak.

Bi. Kooperatibaren transformazioa, bat-egitea, zatitzea edo desegitea erabakitzeko, batzarrean daudenen edo ordezkaturakoen baliozko botoen bi hereneko gehiengo beharko da, betiere kooperatibako boto guztien ehuneko hirurogeita hamabost baino txikiagoa baldin bada bertaratu eta ordezkaturakoen boto-kopurua.

Hiru. 38. Bost artikuluan aurrikusiten den artezkaritza-kontseiluko kideak kargutik kentzeko erabakia hartzeko, bertan dauden eta ordezkaturak dauden botoen bi herenek eman beharko dute horren aldeko botoa.

36. artikulua. Batzar orokorrak hartutako erabakiak aurkaratzea

Bat. Batzar orokorraren erabakiak aurkaratu ahal izango dira, baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren ez-bazkideen mesedetan.

Bi. Erabakia ezin izango da aurkaratu baldin eta, Kapital Sozietateei buruzko Legean ezarritako baldintzei jarraikiz, hura ondoriorik gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu, ezta aipatu lege horretan xedatutako beste kasuetan ere. Aurkaratzeko arrazoia ezaba daitekeenean, merkataritza-arloko epaitegiak zentzuzko epe bat emango du hori konpontzeko.

Hiru. Aurkaratze-akzioa honako hauek egikaritu ahal izango dute:

- a) bazkideek,
- b) administratzaileek,
- c) zaintza-batzordeko kideek edo
- d) interes legitimoa duen bazkide ez den edozein hirugarrenek.

Aurkaratze-akzioa egikaritzeko aukera urtebetean iraungiko da, salbu eta erabaki horien karia edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.

Lau. Oro har, Sozietate Kapitalaren Legearen arabera ezarriko da aurkaratze-prozedura. Salbuespenez, baina, demanda-idatzian aurkaratutako erabakia eten dadila eskatzeko, exijituko da zaintza-batzordeak berak edo ondoren azaltzen den artezkaritza duten pertsonen eskatzea:

- a) bazkideen ehuneko hamar ordezkaturak duten pertsonen, kooperatibak 50 bazkide baino gehiago badu,
- b) bazkideen ehuneko hamabost ordezkaturak dutenek, kooperatibak 10 eta 50 arteko bazkide baditu,
- c) bazkideen ehuneko hogeitaz ordezkaturak dutenek, kooperatibak 10 bazkide baino gutxiago badu.

Bost. Artikulu honetan aurrikusitako iraungitze-epeak erabakia hartu den egunetik hasiko dira zenbatzen, eta erabakia inskribatu beharrekoa bada, berriz, Kooperatiben Erregistroan inskribatzen diren egunetik hasita.

Sei. Aurkaratze-ekintzak indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera tramitatuko dira.

Zazpi. Aurkaratze-akzioaren baiespen-epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo aurkaratutako erabakiaren ondorioz hirugarren ez-bazkide onustedunek lortutako eskubideei.

2. ATALA. KOOPERATIBA ADMINISTRATZEA ETA ORDEZKATZEA (ARTEZKARITZA-KONTSEILUA)

Testu-proposamena

37. artikulua. Administratzaileak. Izaera eta eskumenak

Bat. Artezkaritza-kontseiluari bakarrik dagokio kooperatiba kudeatzea eta ordezkatzea; gainera, legeek edo estatutuek sozietateko beste organo baten esku espresuki uzten ez dituzten beste eskumen guztiak ere haienak izango dira.

Bi. Artezkaritza-kontseiluari ondoko ahalmen berezi hauek dagozkio:

- a) Bazkideak onartzeari eta baja emateari buruz erabakitzea, beti ere estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
- b) Kooperatiba erantzukizun osoz ordezkatzea, delegazio-ahalmenez, edozein motatako egintza eta kontratuetan eta, bereziki, kooperatiba partaide den erakundeetako organo sozialetan.
- c) Koordinatzaile nagusia (zuzendari gerentea) izendatzea batzar orokorraren iritzia entzunda, eta, honen proposamenez, sailetako zuzendariak izendatzea, baita horiek kargugabetzea eta horien ahalmenak, eginbeharrak eta ordainsariak finkatzea ere. Hala badagokio, horien aurkako erantzukizun-ekintzak egikaritzea.
- d) Bazkide-langile eta ez-bazkideen baldintza ekonomikoak eta laguntza-moduak erabakitzea.
- e) Kooperatibaren martxa antolatu, gidatu eta kudeatzea.
- f) Estatutuetako eskubide eta betebeharrei buruzko gaiez erabakitzea, lanaren antolatzeari buruzko gaiez arduratzea, eta bazkideen lan- eta diziplina-araubideaz kargutzea.
- g) Estatutu eta barne-araubidearen erregelamenduetako aginduak zuzen aplikatzeko eta erabakiak betearazteko behar diren jardute-araudiak onestea.
- h) Helburu soziala gauzatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren egintzak burutzea eta kontratuak egitea, ondasun higiezinak eskuratzeari edo besterentzeari eta eskubide errealak eratzeari buruzkoak salbuetsi gabe, hipoteka-eskubidea eta errentamendu-eskubide berezia barne; eta baimentzen zaizkion negozio- eta eragiketa-mota guztiak ebatzea.
- i) Elkarteari zor zaizkion diru-kopuruak eskatzea eta kobratzea, Ogasuneko ordezkaritzetan, ministerioetan, Gordailuen Kutxa Nagusian eta beraien sukurtsaletan eta gainerako bulego, institutu, entitate eta erakunde publiko eta pribatuetan, nazional, atzeritar edota Europako Ekonomi Komunitatekoak, eta orokorrean, obligazioak betetzea eskatzea, behar diren ordainketa-gutunak errezibotan formalizatuz eta edozein kitapen-mota edo akordio onetsiz.
- j) Ondoren zehazten diren eragiketak egitea:
 - Fondo eta ondasun sozialak erabiltzea, erreklamatu, jaso eta kobratzea, partikularrengandik nahiz bulego publikoetatik, Kutxa Orokorreko gordailuak eratuz edo erretiratuz interes sozialentzat komeni den lekuan. Elkaratearen izenean sinadura eman eta jardutea, mota orotako banku-eragiketak egiteko Estatuko nahiz atzerriko entitateekin, Espainiako Bankuan ere eragiketak burutuz. Kontu

korronteak, eperako diru-ezarpenak eta banku-gordailuak, eskudiru, kreditu nahiz baloreenak, eratzea eta horietatik guztietatik eskudirua edo baloreak erretiratzea.

- Kanbio-letrak, aginduzko ordainketak eta bestelako merkataritza-efektu eta jiratzen direnak negoziatu, deskontatu, interbenitu, konpentsatu, kobratu, ordaindu, libratu, onartu, abalatu, endosatu eta kexa adierazi onartzen edo ordainketa gertatzen ez denean.
 - Edozein motako merkantziekin eragiketak pignoratzea.
 - Korrespontsalen esku dauden kooperatibaren fondo eta ondasunak erabiltzea.
 - Segurtasun-kutxak alokatu eta irekitzea.
 - Elkartearen berme pertsonalaz eta bere baloreen bermeaz maileguak eskuratzea. .
 - Endosagarriak ez diren kredituak transferitzea.
 - Merkataritza-eragiketak egitea fidantzatzea.
 - Kreditu-polizak abalatzea.
 - Fondoan, errenten, kredituen edo baloreen transferentziak egitea, edozein diru-mugimendu edo giro-mota erabiliz. Kontuen saldoak eta finikitoak onestea, gordailuak edo fidantzak eratu edo erretiratzea, kontuak osatzea, aldaketak formalizatzea, etab., bai Espainiako Bankuan eta banka ofizialean, baita banku eta aurrezki-entitate pribatuetan, nazional zein atzeritarretan.
 - Lehiaketa eta enkanteetan parte hartzea, era guztietako hitzarmenak sinatzea, etetea edo zuzentzea egoki iruditzen zaizkion baldintzekin.
- k) Batzar orokorrak erabakitako interesen ordainketaren data erabakitzea.
- l) Kooperatibarentzat komenigarriak izan daitezkeen sinadura-bermeak, eta mailegu- edo kreditu-eragiketak erabakitzea.
- m) Erakunde publiko zein pribatuen aurrean abalak ematea, baita zuzenbidean onartutako edozein titulu-mota (zor publikoa, balore higigarri zein higiezinak), erosi, saldu, harpidetu eta gordailatzea ere, egokitzen jotzen den moduan afektatu ahal direlarik.
- n) Batzar orokorrean onartutakoaren arabera, diru-ekarpenen harpidetzarako eta obligazioak, partaidetza-tituluak edota partaidetza bereziak jaulkitzeko behar dena zehaztea.
- o) Erabilgarri dauden fondoan inbertsioa zehaztea, aurrekontuak osatzea, gastuak baimentzea, eta kooperatibaren ahaldunak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarri iruditzen zaizkion ahalmenak emanez.
- p) Batzar orokorrak deitzea, ohikoak zein bereziak, eta bertan erabakitakoak betearaztea.
- q) Negozio sozialeko alor zehatzak zuzentzeko edota gai jakinetarako ahalak esleitzea eta baliogabetzea pertsona zehatzei.
- r) Estatutu hauek interpretatzeari buruzko zalantzak argitzea, lehenengo burutzen den batzar orokorrean kontu emanez.
- s) Estatutu hauetan bereziki jasotakoak.

- t) Kontseiluko kideen uko egiteari, hutsik dauden postuen ordezkatzeari eta, oro har, organoaren beraren barne-funtzionamenduari dagokion araudia ebaztea.
- u) Batzar orokorrari estatutu sozialen moldaketak eta barne-araubidearen erreglamenduaren onarpena eta moldaketak proposatzea.
- v) Urtero, ohiko batzar orokorrari Kontuak, Balantzea eta kudeaketa sozialaren Memoria aurkeztea, eta soberakin garbien banatzea edo galeren egozpena proposatzea.
- w) Epaitegi eta auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta Estatu, autonomia Administrazio, herrialde edo udalerrietako bulego, agintari, korporazio edo erakundeen aurrean, kooperatibari dagozkion eskubide edo ekinbideak egikaritzeko komenigarri iruditzen zaiona erabakitzea, baita errekurtsio arrunt eta apartekoak aurkezteari buruz ere. Horretarako, ordezkari, prokuradore edo letratuak izenda ditzake kooperatiba ordezkatu eta defendatzeko, eta pertsona horiei, behar eran, kasuan kasuko ahalmenak emango dizkie adiskidetze, espediente, auzi, galdaketa, errekurtsio edo bestelako jardueretan ekiteko, bat etorri edota bertan behera uzteko, eta edozein prozedura-egoeratan, prozedura geldiaraztea eskatzeko eta beharrezko izan litekeen guztirako, baita zabaltasun osoz judizialki amore emateko ere.
- x) Aseguruak izenpetzea, suteen aurka eta bestelako mota guztietakoak, garraioak, lan-istripu eta sozialak, lapurreta eta bestelakoak; aseguru-primak ordaintzea, aseguratzaileri kobraketak eskatzea, eta eskatzen diren eskakizun guztiei bidea ematea.
- y) Ordainketa-etendura, porrota eta kooperatibaren desegite-espedienteak proposatzea, eta prozesuan bere eskuduntzakoak diren urrats guztiak burutzea.
- z) Batzar orokorrari kooperatibaren deuseztatzea proposatzea.

Hiru. Artezkaritza-kontseiluaren eskuduntza-zerrenda hau aipamen-izaerakoa da soil-soilik eta ez ditu administratzaileen eskuduntzak mugatzen, ez bada espreski Legean jasota dagoela batzar orokorrari dagozkion eskuduntzetan.

38. artikulua. Osaketa, hautaketa, kargu-uzteak eta bete gabeko karguak

Bat. Administratzaileek kide anitzeko organoa osatuko dute, eta organo horri artezkaritza-kontseilua deituko zaio.

Artezkaritza-kontseilua bost kidek osatuko dute. Horietako hiru, lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izango dira.

Genero-berdintasuna erakundearen balioetako bat den neurrian, eta artezkaritza-kontseiluak eredugarri izan behar duenez, Kontseiluko kideen artean 3 emakume egon daitezten bultzatuko da.

Era berean, lurraldeen arteko oreka zaintzeko, herrialde bakoitzeko ordezkari bat hautatuko da.

Kooperatibako bazkide edo kontseilari ez den pertsona batek idazkari kargua bete dezake.

Bi. Administratzaileak batzar orokorrean hautatuko dira, isilpeko bozketan emandako baliozko botoen kopururik handiena lortuta.

Lurralde bakoitzeko ordezkariaren hautaketan, kooperatibako bazkide guztiek hartuko dute parte.

Artezkarrizta-kontseiluak proposatuta, Helduen Euskalduntzean adituak diren eta bazkide ez diren lagunak artezkarrizta-kontseiluko kide izateko hautatu ahal izango dira. Horrelako kideak ezin izango dira artezkarrizta-kontseiluaren bostena baino gehiago izan. Era berean, aldi baterako bazkideen kopuruak ezin izango du gainditu artezkarrizta-kontseiluko kideen bostena.

Artezkarrizta-kontseiluak, bere kideen artean, lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria izendatuko ditu.

Agintaldiaren iraupena lau urtekoa izango da, eta bi urtean behin partzialki berrituko da, kideen erdiak eta bere berritzea partziala izango da, bi urtetik behin erdiak berriro hautatuak izan daitezkeelarik. Artezkarrizta-kontseiluaren osaketa parekoa ez bada, lehenengo berritzean eragindakoen kopurua gorantz biribilduko da; geratzen direnak hurrengoan berrituko dira; eta horrela jokatu da beste guztietan ere, hurrengoan berrituz geratutakoak eta horrela beste guztietan ere.

Agintaldiaren epea amaitzen denean, kontseilariak beraien karguetan jarraituko dute, harik eta batzar nagusian hautatutakoek kargua onartu arte.

Hiru. Honako hauek ezin izango dira izan administratzaile:

a) Funtzionarioak eta Administrazio publikoaren zerbitzuko langileak, dena delako kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten funtzioak baldin badituzte, epaile eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak.

b) Beren edo besteren kontura arituz kooperatibarekin lehiatzen dauden jarduerak egiten dituztenak, edo modu batera edo bestera kooperatibaren interesen aurkako interesak dituztenak, hargatik eragotzi gabe indarrean dagoen legedian xedaturikoa.

c) Ezedentzian dauden bazkideak, egoera horrek iraun bitartean.

d) Emantzipatu gabeko adingabeak; epaiketa bidez ezgaituak; Konkurtso Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltukeriagatik kondenatuak, bai eta haien kargua dela-eta merkataritzan ezin jardun dezaketenen ere.

e) Zaintza-batzordeko eta errekurtsio-batzordeko kideak eta koordinatzaile nagusia.

Administratzailearen bati eragiten badiu artikulua honetan aipatzen den ezgaitasun edo debekuren batek, berehala utzi beharko du bere kargua. Dena den, bere karguan jarduteari aldi baterako uztera behartu ahal izango du zaintza-batzordeak hurrengo batzar orokorra egin arte. Batzar orokorrak administratzailea kargutik kenduko du, baldin eta kargua kautelaz eten bazaio edo bazkide batek eteteko eskatu badu; salbu eta c) apartatuan aurreikusitako kasuan, zeinean batzar orokorrak libreki erabakiko baitu kargutik kendu ala ez.

Lau. Artezkarrizta-kontseiluko kideren baten lekua hutsik geratzen bada, hurrengo batzar nagusian beteko da, hutsuneak duen agintaldirako. Hutsune hori betetzeko, gutxienez bi hautagai proposatuko dira. Ezin bada horrela bideratu, salbuespenez izen bat proposatu ahal izango da. Lehendakariaren postua hutsik geratzen bada, haren egitekoak lehendakariordeak beteko ditu, lehenengo batzarra egin arte.

Lehendakariaren eta lehendakariordearen lekuak aldi berean geratzen badira hutsik, kontseilarien arteko adinduenak hartuko du kargua berehala, eta batzar nagusia deituko du, karguen hautaketarako, hurrengo hogeita hamar egunen buruan.

Prozedura bera erabiliko da, gainerako kontseilariekin ere, egitura hori, kopuruengatik, balioz eratuta geratuko ez balitz.

Kide berriak izendatu ondoren, arduen birbanaketa egingo du artezkaritza-kontseiluak bere lehenengo bileran.

Bost. Batzar orokorrean, administratzaileak kargutik kentzea erabaki ahal izango da, gai-zerrendan halakorik agertzen ez bada ere. Gai hori gai-zerrendan ageri ez denean, kargutik kentzearen alde batzarrean dauden botoen eta ordezkaturakoen bi herenek bozkatu beharko dute.

Administratzailearen bat kargutik kentzen baldin bada, administratzaile berriak hautatu beharko dira batzar orokorraren saio berean, gai-zerrendan halakorik agertzen ez bada ere.

Sei. Onartzen den une beretik izango ditu ondorioak administratzaile-izendapenak, eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da, 30 eguneko epean, kargua onartzen denetik aurrera kontaturik.

Administratzaile bat kargutik kentzeko arrazoia edozein dela ere, hirugarren ez-bazkideen aurrean Euskadiko Kooperatiben Erregistroan izena ematen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Zazpi. Administratzailearen kargua doakoa izango da. Edozein kasutan, karguaren ondoriozko gastuak ordaindu beharko zaizkie. Doakotasun horrek ez die eragiten administratzaile-jardueratik at bazkide-langileak betetzen dituen lan-zerbitzuen ordainketei.

39. artikulua. Funtzionamendua

Bat. Artezkaritza-kontseilua, gutxienez, hilean behin batzartuko da, eta baita lehendakariak deialdia egiten duen bakoitzean ere, edo kideen herenak gutxienez eskari arrazoitua egiten badu. Bileretan, bere eskuduntzako gai guztiak azter eta erabaki ditzake.

Bi. Artezkaritza-kontseiluaren bileren deialdia kide bakoitzari zuzendutako idatzi bidez egingo du lehendakariak.

Hiru. Artezkaritza-kontseilua balioz eratuta geratuko da bilerara partaideen erdiak baino gehiago bertaratzen direnean. Norberak bertaratu beharko du, ordezkapena ez da zilegi. Bertaratutakoen botoen erdiekin baino gehiagorekin hartuko dira erabakiak. Kontseilariak boto bana izango dute. Lehendakariaren botoak erabakiko ditu berdinketak.

Lau. Bilerak aurrez aurre ala bideo-

konferentziaren bidez edo irudiaren eta soinuaren bi noranzko eta aldibereko komunikazioa, eta ikusizko, entzumenezko eta ahozko elkarrekintza ahalbidetuko duen antzeko sistema baten bidez egingo dira.

Bideo-konferentziaz egin ahal izateko, gutxienez artezkaritza-kontseiluko kideen erdiek eskatu beharko dute.

Edonola ere, desplazamendu-arazoak tarteko, administratzailearen batek bideo-konferentziaren bidez parte hartu nahiko balu, aukera emango zaio hala bertaratzeko.

Bost. Artezkaritza-kontseiluak aurreko paragrafoaren arabera emandako bi herenen aldeko botoa beharko du, gutxienez, honako erabaki hauek hartzeko:

- Jarduera-zentro nagusi bat edo haren zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzea.
- Kooperatibaren jarduera murriztu, zabaldu edo nabarmen aldatzea.
- Kooperatibaren antolamenduan aldaketa garrantzitsuak egitea.
- Kooperatiba diren edo ez diren beste entitate batzuekin lankidetzaharremanak egin edo azkentzea, betiere lankidetzaharreman horiek iraunkorrak eta baliagarriak gertatzen badira kooperatibarentzat.

Sei. Kontseiluaren erabakiak akta-liburu batean jasoko dira. Bileraren aktan, izandako eztabaiden laburpena eta erabakien testua jasoko dira, bozketen emaitzekin batera, eta lehendakariak eta idazkariak izenpetuko dute.

Zazpi. Artezkaritza-kontseiluak, kideen artean, kontseilari-delegatu bat izenda dezake, eta izendapenerako, kontseiluko kideen bi herenen aldeko botoa eta notario aurreko formalizazioa behar da, eta ez du ondoriorik izango Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Ezin izango da inola ere delegatu batzar orokorrari kontuak emateko eta urteko kontuak aurkezteko lana; era berean, ezin izango dira delegatu batzar orokorrak artezkaritza-kontseiluari laga dizkion ahalmenak, salbu batzar orokorrak espresuki ematen duenean hori egiteko baimena.

40. artikulua. Administratzaileen betebeharrak eta erantzukizunak

Bat. Administratzaileek beren karguari dagozkion funtzioak eta legetan eta estatutuetan ezarritako betebeharrak enpresaburu onaren arretaz bete beharko dituzte, kontuan harturik zer izaera duen haien karguak eta zer funtzio esleitu zaizkien, eta behar besteko neurri hartu beharko dituzte kooperatiba behar bezala kudeatzeko eta ordezkatzeko.

Era berean, ordezkari leial bati dagokion fideltasunez jardungo dute beren karguan, onustez eta kooperatibaren onurarako, eta esleitu zaizkien ahalmenak ezarritako helburuetarako baliatuko dituzte, eta ez beste ezertarako.

Administratzaileek, beren funtzioak amaitu eta gero ere, sekretupean gorde behar dituzte isilpeko datuak, legeak bestelakoa ahalbidetzen edo agintzen duenean salbu.

Administratzaileek ez dute inolako jarduerarik garatuko, ez bere kabuz ez besteren konturako, baldin eta horrek lehia egiten badio kooperatibari, edo, nola edo hala, gatazka sortzen badu haren interesekin.

Nolanahi ere, kooperatibak debeku horietatik salbuetsi ahal izango du administratzailea, betiere kasu berezietan eta batzar orokorrak horretarako baimena ematen badu espresuki.

Administratzaileak, horrelako gatazka-egoera batean inplikaturik badago, zeinaren berri eman beharko baitio artezkaritza-kontseiluari edo batzar orokorrari administratzaile bakarra bada, ezin izango du parte hartu bozketan.

Aipaturiko baimenik gabe gauzaturiko egintzak, kontratuak eta eragiketak deuseztatu ahal izango dira, salbu eta hirugarren ez-bazkide onustedunek eskuraturiko eskubideen kasuan.

Enpresa-diskrezionalitateari atxikitako erabaki estrategikoen eta negozio-erabakien arloan, ulertuko da enpresaburu onaren arretaren estandarra betetzen dela administratzailea onustez jardun denean, erabakiaren xede den gaian interes pertsonalik izan gabe, behar adina informazioarekin eta erabakitzekeo prozedura egokiaren arabera jardunez.

Ez dira enpresa-diskrezionalitatearen barruan jasoko kooperatibaren interesekiko gatazka eragiten duten edo eragin dezaketen erabakiak.

Bi. Administratzaileena izango da legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sorturiko kalteen erantzukizuna, baita karguari dagozkion funtzioak ez betetzean eragindakoena ere, betiere dolo edo erruz jardun badute.

Erantzukizun solidarioa dute egintza kaltegarria gauzatu edo erabaki kaltegarria hartu duen organoaren kide guztiek, salbu eta honako hau frogatzen dutenek: erabakia hartu edo betearaztean esku ez hartzeaz gain, ez zekitela erabaki hori hartu zenik, edo, jakin arren, kalteak saihesteko beharrezkoa zen guztia egin zutela, edo, gutxienez, espresuki jo zutela erabakiaren aurka.

Erantzukizuna berbera izango da egintza edo erabaki kaltegarria batzar orokorrak hartu, baimendu edo berretsi bazuen ere.

41. artikulua. Erantzukizun-akzioak

Bat. Administratzaileen aurkako erantzukizun-akzio soziala kooperatibak egikaritu ahal izango du; aurrez, batzar orokorrak gehiengo soilez erabaki beharko du, nahiz eta eguneko gai-zerrendan halakorik agertu ez. Batzar orokorrak edonoiz emango dio baiezkoa nahiz ezezkoa akzioa egikaritzeari.

Gai-zerrendan agertzen ez bada, aldeko botoa eman beharko dute batzarrean daudenen eta ordezkaturikoen botoen bi herenek. Ez dira kontatuko ez boto zuriak ez baliogabeak.

Batzar orokorrak erantzukizun-akzioa bultzatzeari edo egikaritzeari baiezkoa ematea erabakiz gero, ukitutako administratzaileak kargutik kanpo geratuko dira berez eta besterik gabe.

Bi. Erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizun-akziorik hasten ez badu, edozein bazkidek hasi ahal izango du. Sozietatearen interesaren alde, botoen ehuneko hogeitaz ordezkatzeko duten bazkideek ere hasi ahal izango dute erantzukizun-akzioa, baldin eta administratzaileek ez badute deitzen horretarako eskaturiko batzar orokorra.

Kaltea egin eta sei hilabetera batzarrak edo bazkideek ez badute akzioa gauzatzen, sozietateko edozein hartzekodunek hasi ahal izango du erantzukizun-akzioa, kooperatibaren ondarea berriro osatzeko helburuarekin bakar-bakarrik.

Hiru. Dena den, akzioa iraungita geratuko da, baldin eta bi urte igaro badira erantzukizun-akzioa

eragin zuten egintzak gertatu edo ezagutu zirenetik.

Lau. Aurreko azpiataletan erabakitakoa gorabehera, horretatik guztitik kanpo geratzen dira bazkide edo hirugarren ez-bazkideei dagozkien norbanako akzioak, hain zuzen ere administratzaileek haien kaltetan egindako egintzen aurkakoak.

42. artikulua. Erabakiak aurkaratzea

Bat. Artezkaritza-kontseiluaren erabakiak aurkaratu ahal izango dira, baldin eta legearen edo estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein bazkide ez direnen mesedetan.

Bi. Administratzaileek eta zaintza-batzordeak erabaki horiek aurkaratu ahal izango dituzte hirurogei eguneko epean, erabakia hartzen denetik aurrera kontaturik.

Era berean, edozein bazkidek aurkaratu ahal izango ditu erabakiak, hirurogei eguneko epean, haien berri izan zuenetik aurrera kontaturik, betiere ez bada urtebete igaro erabakia hartu zenetik.

Hiru. Aurkaratzeak zehaztuta dauden ondorioak izango ditu eta batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko ezarritakoaren arabera izapidetuko da. (36-Sei artikulua).

3. ATALA. ZAINITZA-BATZORDEA

43. artikulua. Zaintza Batzordea. Osaketa, agintaldia, izendatzea, jarduera-eremua, ahalmenak eta funtzionamendua

Bat. Indarrean dagoen legerian ezarritakoari jarraikiz, bazkide-kopurua 100era ailegatzen denean, **batzar** nagusiak, estatutu hauen arabera bateraezintasun-egoeretan ez dauden edo eskubiderik kendu ez zaien kideen artean, zaintza-batzordea osatuko duten 3 kide eta horien ordezkokoak izendatuko ditu. Isilpeko bozketa bidez hautatuko dira, eta agintaldia 3 urtekoa izango da. Agintaldia ezingo da artezkaritza-kontseiluko kideenarekin aldi berean egin.

Zaintza-batzordeko kideak berriro hautatu daitezke, eta estatutu hauek eta Legeak artezkaritza-kontseiluko kideentzat ezarritako erantzukizun-, ordainsari-, ezgaitasun-, debeku- eta inskripzio-arauen menpe geratzen dira.

Bi. Administratzaileek zaintza-batzordeari kooperatibaren jardueren eta ustez izango duen bilakaeraren berri eman beharko diote, hiru hilabetean behin gutxienez.

Batzordeak bere lana egiteko behar beste egiaztapen egiteko eskubidea du, eta hori egiteko agindua bere kideetako bati edo batzuei eman ahal izango dio/die edo, bestela, adituen laguntza eskatu ahal izango du, kideen artean halakorik ez badago.

Batzordeko kide guztiek izango dute emandako edo jasotako informazio guztia ezagutzeko aukera, baina ez dute ikerketa-lanen edo jasotako informazioaren emaitzen berri ematerik izango estatutuetan zehaztutako eremuetatik kanpo, ez eta kooperatibako kideen aurrean ere.

Hiru. Zaintza-batzordeak indarrean dagoen legedian zehaztutako funtzioak egikarrituko ditu, baina ezin izango du kooperatibaren kudeaketa zuzenean parte hartu, eta ezingo da kooperatibaren ordezkari izan hirugarren ez-bazkideen aurrean; baina, kooperatibaren ordezkari izango da kooperatiba beraren administrazio-organoaren edo bere kideetako edozeinen aurrean, baldin eta organo hori auzitara eraman behar bada edo organo horren kideekiko hitzarmenak bukatu egin badira.

Lau. Zaintza-batzordeak honako funtzio hauek betetzeko ahalmena du:

a) Urteko kontuak aztertzea eta kontu horiei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz nahitaezko txostena egitea, batzar

orokorrean azaldu aurretik, salbu eta kooperatibak bere finantza-egoera auditoretzaren baten aurrean aurkeztu behar duenean.

- b) Kooperatibaren liburuak aztertzea.
- c) Kooperatibaren onerako beharrezkotzat jotzen duenean, batzar orokorra biltzeko deia egitea, baldin eta administratzaileek ez badiote, epe barruan, kasurik egin bazkideek estatutu hauen 32. artikuluan ezarritakoaren arabera egindako eskariari.
- d) Ordezkaritza-idazkiak egokiak diren gainbegiratu eta kalifikatzea, eta, orokorrean, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza eta gorabeherak ebaztea.
- e) Lege honetan zehaztutako kasuetan, sozietatearen erabakiak aurkaratzea.
- f) Batzar orokorrari ebazpena emateko aurkeztu dizkion egoera edo arazo zehatzei buruzko informazioa ematea.
- g) Batzar orokorrak gainerako organoetako kideak aukeratzen dituen erabilitako hautaketa- eta izendapen-prozesua zaintzea.
- h) Administratzaileen funtzioak etetea, baldin eta estatutu hauen 38-Hiru artikuluko ezintasun- edo debeku-egoeraren batean badaude, eta, hala gertatuz gero, beharrezko neurriak hartzea batzar orokorra bildu arte.
- i) Lege honek espresuki agindutako gainerako eginkizun guztiak.

Kooperatibak bere finantza-egoerak auditatu behar dituen, zaintza-batzordeak kontabilitate-euskarriak aztertu ahal izango ditu –kideek komeni dela uste badute–, eta, beharrezkoa bada, horiei buruzko txostena egin ahal izango du. Dena dela, txosten hori ez da nahitaezkoa izango kooperatibaren urteko kontu auditatuak onartzeko.

Era berean, eta urteko kontuak auditatzen badira ere, zaintza-batzordeak txosten bat egin ahal izango du soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz.

Deskribaturiko bi kasu horietan, zaintza-batzordeak artezkaritza-kontseiluari jakinarazi beharko dio asmoa duela aurkezteko kooperatibaren urteko kontuei buruzko eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko ez-nahitaezko txosten bat, bazkideek txosten hori aztertzeko aukera izan dezaten ohiko batzar orokorraren deialdia argitaratzen den unean berean.

Bost. Zaintza-batzordearen funtzionamendu-araubidea barne-erregelamenduan jasoko da. Halere, edozein administratzailek edo batzordeko edozein kidek eska diezaioke idatziz bertako lehendakariari organo hori biltzeko deia egin dezala, eskaera egiteko dituen arrazoiak azalduta. Eskaera hori gutxienez artezkaritza-kontseiluaren edo zaintza-batzordearen beraren herenak egiten baldin badu, eta hilabeteko epean biltzeko deirik egiten ez bada, eskatu duten taldeetako edozeinek egin ahal izango du deia.

Sei. Likidazioaldian, artikulua honetan zehaztu zaizkion funtzioen artetik aldi horretan bidezkoak direnak bakarrik egikaritutako dituzte zaintza-batzordeak.

4. ATALA. ERREKURTSO-BATZORDEA

44. artikulua. Errekurtsio-batzordea

Bat. Indarrean dagoen legerian ezarritakoaren babesean, bazkideak 50 baino gehiago izan daitezenean, errekurtsio-batzorde bat arautu ahal izango da bazkideen arau-hauste astun edo oso astunengatik entitatean lehen auzialdian hartutako erabaki zehatzaileak berriro aztertzeko, baina bakarrik ukitutakoak

berrazterketa eskatzen badu. Legean eta estatutu hauetan horrela jasota dauden kasuetan, zehatzaileak ez diren erabakiengatik ere errekurtsua jarri ahal izango zaio batzorde honi. Bazkideak 50 baino gutxiago diren bitartean, errekurtsu guztiak batzar nagusiari aurkeztuko zaizkio, eta horrek ebatziko ditu.

Bi. Errekurtsu-batzordea 3 kidek osatuko dute. Batzordeko kide izateko, hurrengo baldintzak bete behar dira: 3 urteko antzinatasuna, kooperatibako lansaridun ez izatea, inolako kargu sozialik ez izatea, Kooperatibako araudia ezagutzea, eta kargurako hautatua izan aurreko bi urteetan diziplina-espedienterik ez izatea.

Kide titularrak eta 3 ordezko kideak batzar orokorrak aukeratuko ditu, isilpeko bozketan eta sozietatean ardurazko kargurik ez duten eta kooperatibako soldatapeko ere ez diren bazkideen artetik.

Errekurtsu-batzordearen agintaldia 3 urtekoa izango da.

Hiru. Batzordeak, bere kideen artetik, lehendakaria eta idazkaria izendatuko ditu. Horietakoren bat falta bada, saio bakoitzean beteko da hutsune hori.

Lau. Errekurtsu-batzordearen eztabaidak baliozkoak izateko, bileran kideen erdiek baino gehiagok egon beharko dute, eta ezin izango da botoa delegatu; erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Diziplinarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko bozketa isilpekoa izango da beti, eta ez da egongo kalitatezko botorik.

Errekurtsuei buruzko izapideak egin edo erabakitzerakoan, batzordeko kideek ezin izango dute parte hartu baldin eta ukitutako bazkidearekiko bigarren gradura arteko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna badute edo pertsona horrekiko mendekotasuna, adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna badute.

Bost. Errekurtsu-batzordea egoerak edo bazkideen egintzek horretara bultzatzen dutenean bilduko da, eta bere esku izango ditu beharrezko bitarteko eta lokal egokiak kooperatiban bertan.

Sei. Bileraren aktan erabakien testua jasoko da, eta errekurtsu-batzordearen akta-liburuan inskribatuko da, idazkariak eta lehendakariak izenpetuta.

Errekurtsu-batzordearen erabakiak, sozietatearen nahiaren adierazpen direnez gero, berehalakoan bete beharko dira eta behin betikoak izango dira. Aurkaratu egin daitezke, batzar orokorrak hartu izan balitu bezala, estatutu hauen 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

IV. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA

45. artikulua. Erantzukizuna

Bat. Kooperatibak erantzungo du sozietatearen zorrez uneko eta geroko ondare guztiarekin, salbu eta kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenari dagokiona, zeinaren bidez helburu horiek betetzean sorturiko zorrez bakarrik erantzungo baita.

Bazkideek ez dute sozietatearen zorren erantzukizun pertsonalik izango. Haien erantzukizuna sozietate-kapitalari egindako ekarpenek mugatuko dute.

Bi. Itzuli beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja ematen duten langileek ez dute inolako erantzukizunik izango baja eman aurretik kooperatibak egin zituen zorreatatik.

Baina, bazkideek, baja eman eta gero ere, erantzukizuna izango dute baldin eta kontratuak izenpetu edo betebeharrak hartu badituzte, berariaz eta espresuki, sozietate kooperatiboarekin, eta betebeharrak ez badira azkentzen, beren izaera dela-eta, bazkide izateari utzi eta gero.

46. artikulua. Kapital soziala

Bat. Bazkideek kapital sozialari egiten dizkioten ondare-ekarpenek, nahitaezkoek edo borondatezkoek, osatuko dute kooperatibaren kapitala. Ekarpenera horiek honelakoak izan daitezke:

- a) Baja-kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak.
- b) Batzar orokorrak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpenak.

Baja-kasuan itzultzeko eskubidea duten ekarpenak nahitaez bihurtu ahal izateko kooperatibak baldintza gabe ukatuz gero itzultzeko eskubiderik ez duten ekarpen, edo alderantzizko bihurtura egiteko, estatutuak aldatzeko erabakia beharko da. Bazkideren bat ez badago ados horrekin, baja eman ahal izango du; baja hori bidezkoztat joko da.

Bi. Kooperatibaren gutxienezko kapital soziala bederatzi mila (9.000) eurokoa.

Hiru. Sozietate-kapitalari egindako ekarpenak ziurtatzeko, izendun tituluak erabiliko dira, baina ez dira diru-baliozko titulutzat hartuko; edo, bestela, izendun partaidetza-libretak erabiliko dira, non egindako ekarpen eta eguneratze guztiak eta bazkideari egotzitako galerengatik egindako kenketak azalduko baitira, hala badagokio.

Lau. Ekarpenera egiteko, legezko dirua erabili beharko da. Ondasunak edo eskubideak ere erabili ahal izango dira ekarpenetarako. Halako kasuetan, artezkaritza-kontseiluak zehaztuko du balioa, baina, horretarako, beraiek izendatutako aditu independente batek edo batzuek egindako txosten bat aurkeztu beharko dute, aditu horien erantzukizunegina, ekarpenaren ezaugarriari eta balioari eta hura kalkulatzeko erabili dituzten irizpideei buruzkoa.

Bost. Bazkide bakoitzak egindako guztizko ekarpenek ezin izango dute gaitzitu sozietateren kapitalaren herena, salbu eta sozietate kooperatiboan edo bazkide-laguntzaileen kasuan. Muga hori ez da ezarriko kooperatibak gutxienez 10 bazkide izan arte, indarrean dagoen legedian aurrikusten den bezala.

47. artikulua. Kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpenak

Bat. Bazkide-izaera berenganatzeko hasierako nahitaezko ekarpena desberdina izango da bazkide-mota bakoitzarentzat, eta ondoren azaltzen dena izango da:

- Lanaldi osoko eta iraupen mugagabeko bazkide-langileek: 1.440 euro.
- Lanaldi partzialeko eta iraupen mugagabeko bazkide-langileek: eguneko lanaldi arruntaren baitan, beren lanaldi-zatiari dagokion 1.440 euroren zatiki proportzionala.
- Lanaldi osoko eta iraupen jakineko bazkide-langileek: 360 euro

- Lanaldi mugatuko eta iraupen jakineko bazkide-langileek: eguneko lanaldi arruntaren baitan beren lanaldi-zatiari dagokion 360 euroren zatiki proportzionala.
- Bazkide-laguntzaileek, pertsona fisikoek: 1.000 euro.
- Bazkide-laguntzaileek, pertsona juridikoek: 1.000 eur

Diru-ekarpenaren % 25, gutxienez, harpidetza egiten den unean ordaindu behar da, eta gainerakoa, gehienez, 4 urteko epealdian.

Batzar nagusiak urtero erabakiko du bazkide berrien hasierako derrigorrezko ekarpena.

Bi. Bazkide-izaerari eusteko gutxieneko nahitaezko diru-ekarpena 360 eurokoa da, aurreko azpiatalean lanaldi partzialeko eta iraupen jakineko bazkide-langileentzat aurrikusitakoa izan ezik.

Bazkideei kooperatibaren galerak egozten zaizkielako edo estatutuetan jasotako diru-zehapena ordaindu behar dutelako, bazkideren batek edo batzuek sozietate-kapitalari egin beharreko ekarpena ez bada heltzen gutxieneko zenbatekora, ukitutako bazkideei berehala errekerituko zaie beste ekarpen osagarri bat egin dezatela bazkide izaten jarraitzeko. Ekarpena, gehienez, urtebeteko epean egin beharko dute.

Hiru. Batzar orokorrak nahitaezko ekarpen berriak erabaki ahal izango ditu, eta zenbatekoa eta ordaintzeko epeak eta baldintzak zehaztu. Zenbateko hori desberdina izan liteke bazkide batentzat edo beste batentzat. Kapitala nahitaez zabaltzearekin konforme ez dagoen bazkideak baja eman ahal izango du. Baja hori bidezkotzat joko da.

Aurrez egindako borondatezko ekarpenak erabili ahal izango dira nahitaezko ekarpen berriak ordaintzeko.

Lau. Bazkideen nahitaezko ekarpena honela banatuko da:

a) Iraupen mugagabeko bazkideen kasuan:

Ekarpenaren ehuneko ehun: baja-kasuan, batzar nagusiak itzulketa ukatu ahal duen ekarpena izango da, estatutu hauetako 52. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera.

b) Iraupen jakineko bazkide eta bazkide-laguntzaileen kasuan:

Ekarpenaren ehuneko ehuna baja-kasuan itzulketa jasotzeko eskubidea duen ekarpena izango da.

Bost. Itzulketa ukatu den ekarpenak egonez gero, bazkide berrien derrigorrezko hasierako ekarpenak, baja izandako bazkideen ekarpenak hartzeko erabiliko dira. Transmisio hori itzulketa-eskaera egin den ekitaldiaren arabera egingo da, eta ekitaldi bereko itzulketa-eskaerak egongo balira, transmisioa ekarpenen kopuruaren arabera banatuko da, proportzionaliki.

Sei. Aurreko apartatuetan ezarritakoaren arabera, eskatutako ekarpenak ordaintzeko berandutzarik badago bazkideren baten aldetik, kooperatibari legezko interesa ordaindu eta berandutzaren ondorioz egindako kalteen eta galeren ordaina eman beharko dio. Bazkideak bere egoera zuzentzeko agindua jaso eta hurrengo hirurogei egunetan ez badu zuzendu:

a) Nahitaezko baja eman ahal izango diote, bazkide izateko hasierako nahitaezko ekarpenaren edo artikulua honen bigarren apartatuan ezarritako gutxieneko kopuruaren kasuan.

b) Gainerako kasuetan, kooperatibatik kanporatu ahal izango da.

48. artikulua. Sozietatearen kapitalari egindako borondatezko ekarpenak

Bat. Batzar orokorrak bazkideek kooperatibaren kapital sozialari egindako borondatezko ekarpenen onarpena erabaki dezake, gutxienez ondoko kontzeptuen baldintzak finkatuz:

- Ordaintzeko epea
- Interesa
- Eguneratzea
- Diru-itzulpena
- Eskualdagarritasuna

Baldintza horiek nahitaezko ekarpenenak baino hobeak izan daitezke.

Bi. Administrazioaileek edozein unetan onartu ahal izango dituzte bazkideek sozietatearen kapitalari borondatez egindako ekarpenak, baina haien ordainsaria ez da izango batzar orokorrak kapitalarentzat erabakitako borondatezko azken ekarpenena baino handiagoa, edo, horrelako ekarpenik ez badago, ez da izango nahitaezko ekarpenena baino handiagoa.

49. artikulua. Ekarpenen interesak

Bat. Nahitaezko ekarpenek ez dute interesik sortuko, baldin eta batzar orokorrak beste zerbait erabakitzen ez badu bi herenen gehiengo kualifikatuaren aldeotasunarekin. Kapital sozialerako ekarpenek batzar orokorrak aurrez erabakitako interesa emango dute, gehienez diruaren interes legala.

Bi. Kapital sozialari egindako ekarpenek ez dute interesik sortuko galerak ematen diren ekitaldietan eta aukeran erabili ahal izateko erreserbek horiei neurri batean edo osoki aurre giteko gaitasunik ez dutenean.

Hiru. Batzar orokorrak erabakitzen badu ekarpenei interesen bat sorraraztea edo erabilgarri dituen soberakinak itzulkinetara edo erreserba banagarrietara bideratzea, ordainsari bat jasotzeko lehentasuna izango dute estatutu hauen 46.Bat.b artikuluan aurreikusitako ekarpen hauek: titularrek baja eman eta kooperatibak itzultzea ezetsi dituen ekarpenak.

50. artikulua. Ekarpenak eguneratzea.

Bat. Kooperatibaren balantzea zuzenbide erkideko sozietateentzat xedatutako baldintza eta onura berekin erregularizatu ahal izango da, hargatik eragotzi gabe erregularizazioaren ondoriozko gainbalioarentzat indarrean dagoen legedian ezarritako xedea.

Bi. Aipaturiko gainbalioa, erreserbak, nahitaezkoak zein borondatezkoak, handitzeko erabiliko du kooperatibak ekitaldi bakarrean edo gehiagotan. Nolanahi ere, kooperatibak konpentsatu gabeko galerak baldin baditu, erregularizazioaren ondoriozko gainbalioa haiek konpentsatzeko erabiliko da, eta gainerakoa arestian aipaturiko helburuetarako.

51. artikulua. Ekarpenak eskualdatzea

Bat. Ekarpenak bizidunen artean eta "mortis causa" eskualda daitezke.

Bi. Ekarpenak bizidunen artean eskualdatzen direnean, bazkideen eta hurrengo hiru hilabeteetan bazkide izatera engaiatzen diren pertsonen arteko *inter vivos* egintzen bidez eskualda daitezke, beti ere baldintza hauen arabera:

- Bazkide izateko konpromisoa hartu duenari egindako eskualdaketa bazkide-izaera onartu eta indarrean jartzearen baldintzapean egongo da;
- Eskualdatzen duenaren ekarpena ezin izango da une bakoitzean hasierako derrigorrezko ekarpenaren kopuruaren azpitik jaitsi;
- Hartzaileak ezin izango du eskualdatu den ekarpena bere hasierako derrigorrezko ekarpena osatzeko erabili, ez eta sarrera-kuota ordaintzeko ere;
- Artezkaritzakontseiluan emango da hitzartu eskualdaketen berri, behar bezala baieztatzeko, jarraipena egiteko eta erregistratzeko.

Hiru. *Mortis causa* oinordetzaren bidez, kausadunei, bazkideak badira eta eskatzen badute, edo, bazkide ez badira, estatutu hauen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera bazkidetzat onartu ondoren; bazkide izateko eskaera heriotza gertatu eta hurrengo hiru hilabeteko epean egin beharko da. Bestela, sozietate-ekarpenari dagokion kredituaren likidazioa jasotzeko eskubidea izango dute, hurrengo artikuluan aurreikusitako moduan.

52. artikulua. Ekarpinak itzultzea

Bat. Bazkide-izaera galtzen den kasu guztietan, bazkide izandakoak berak edo bere eskubidedun egiaztatuek ekarpinak itzultzea eskatzeko eskubidea dute.

Ondoren zehatzuko diren kenkarien aurka joan gabe, baja ematen duen bazkideari itzuli beharreko ekarpenaren deskontu-ondorioetarako, baja gertatzen den ekitaldiko itxiera-balantzean jasotako galerak zenbatuko dira, direla ekitaldi horri dagozkionak, direla aurreko beste ekitaldi batzuetatik datozenak edo sozietatearen kapitalari egindako ekarpen osoaren arabera konpentsatu gabe daudenak.

Iraupen mugatuko bazkideak bere ekarpenaren itzulketa jasotzeko eskubidea izango du.

Iraupen mugagabeko bazkideak bere ekarpenaren itzulketa jasotzeko eskubidea izango du, batzar orokorrak kontrako erabakia hartu ezean.

Ekarpenen itzulketak bazkidea kooperatiban baja den ekitaldiaren araberrako hurrenkeran egingo dira.

Batzar orokorrak ezin izango du itzulketa berririk onartu, aurretik ukatutako itzulketak dauden bitartean.

Bi. Baja bidezkoa denean, estatutu hauen 9. eta 10. artikuluetan esan bezala, edo heriotza-kasuetan, ez da ekarpenen gaineko kenkaririk egingo.

Gainerako kasuetan, artezkaritzakontseiluak honako kenkarietako bat erabaki dezake:

- Kanporatzeagatik bajak, edo gutxieneko egonaldia egin gabe bidezkoak ez diren borondatezko bajak direnean, gehienez ehuneko hogeita hamar.
- Bidezkoak ez diren borondatezko edo derrigorrezko bajak direnean, gehienez ehuneko hogei.

Kenkariak bazkidearen nahitaezko ekarpenen kitapen-balioari ezarriko zaizkio, eta inoiz ere ez borondatezko ekarpenei.

Hiru. Itzulketa-epea hiru urtekoa izango da gehienez ere, baja-datatik aurrera kontaturik. Bazkidearen heriotza gertatuz gero, kausadunei egin beharreko itzulketa egitate eragilea izan denetik urtebetetik beherako epean

egin beharko zaio. Artezkaritza-kontseiluari dagokio, kooperatibaren finantza-egoera eta bajaren inguruabarrak kontuan hartuta, epeak finkatzea.

Lau. Kooperatibak itzultzea erabaki duen ekarpenetan, itzultzeke dauden kopuruak ezin izango dira eguneratu, baina eskubidea emango dute diruaren legezko interesa jasotzeko.

Bost. Aurreko apartatuetan ezarritakoa eragotzi gabe, ekarpenak itzuli beharko dira batzar orokorrak sozietatearen kapitala murriztea erabaki duelako edo bazkidearen jarduera kooperatibizatua murriztu delako, betiere estatutuetan ezarritako baldintzei jarraituta.

53. artikulua. Sarrera-kuotak

Bat. Batzar orokorrak ezarri ahal izango ditu sozietatearen kapitalean sartuko ez diren eta itzulgarriak izango ez diren sarrera-kuotak eta aldikakoak. Kuota horiek ezberdinak izan daitezke, honako alderdi hauen arabera: zein bazkide-mota diren, zein den haien izaera –fisikoa ala juridikoa–, edo zer konpromiso duen kooperatibarekin edo zer proportziotan jardun dezakeen kooperatibajardueran.

Bi. Sarrera-kuotek ezingo dute gainditu unean-unean bazkide izateko sozietatearen kapitalari egin behar zaion indarreko nahitaezko ekarpenaren ehuneko hogeita bost.

54. artikulua. Beste finantzabide batzuk

Kooperatibak honelako jaulkipenak erabaki ahal izango ditu: bazkideen edo boto-eskubiderik ez duten hirugarren ez-bazkideen obligazioak, partaidetza-tituluak, partaidetza-kontuak eta borondatezko finantzaketak, edozein dela ere haien modalitate juridikoa. Kontuan harturik zein diren kooperatibaren emaitzak, eragiketa horien ordainsaria osoa edo partziala izan daiteke, zeina ezartzen diren epe eta baldintzak betez ordaindu beharko baita.

55. artikulua. Soberakin garbiak zehaztea

Bat. Soberakin garbiak zehazteko, merkataritza-sozietateentzat ezarritako kontabilitate-arau eta -irizpideak ezarriko dira, salbu eta espezifikoki erregulatzen badira sozietate kooperatiboentzat.

Bi. Dena dela, soberakin garbiak zehazterakoan, honako hauek partida kengarritzat hartuko dira:

- a) Kooperatibaren kudeaketarako entregatutako ondasunen zenbatekoa, zeina ez baita balioetsiko merkatu-preziotik gora, eta bazkide langileen eta lan-bazkideen lan-aurrerakinen zenbatekoa, zeina, oro har, ez baita izango eskualdean bazkide horien jarduera-sektore berean ordaindu ohi dena baino handiagoa.
- b) Kapital sozialari egindako ekarpenen ondoriozko interesak, indarrean dagoen legedian arautuak, eta kapital sozialean sartzen ez diren prestazio eta finantzaketen ondoriozkoak.
- c) Legez baimendutako amortizazioak.
- d) Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak.
- e) Eta indarrean dauden kontabilitate-arauek ondorio berberetarako onartutako beste edozein kenkari.

56. artikulua. Soberakinak banatzea

Bat. Aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko zenbatekoak eta eska daitezkeen zergak kendu ostean, soberakin baliagarri bilakatuko dira soberakin garbiak.

Bi. Urtero, honela bideratuko dira soberakinak:

a) Ehuneko ehun Nahitaezko Erreserba Funtserako eta kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako.

Portzentaje horretatik, ehuneko hamar kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako bideratuko da, eta ehuneko laurogeita hamar, berriz, Nahitaezko Erreserba Funtserako.

b) Nahitaezko Erreserba Funtsa sozietate-kapitalaren ehuneko berrogeita hamarrera heltzen ez den bitartean, erdiraino murriztu ahal izango da kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenerako ezartzen den gutxieneko ekarpena.

Hiru. Irabazi-asmorik gabeko kooperatiba izanik, ekitaldi ekonomikoan sortzen diren emaitza positiboak ezin izango dira bazkideen artean banatu.

57. artikulua. Nahitaezko Erreserba Funtsa.

Bat. Kooperatiba finkatu, garatu eta bermatzeko da Nahitaezko Erreserba Funtsa, eta ezin da bazkideen artean banatu, indarrean dagoen legedian espresuki aurreikusitako egoeretan izan ezik.

Honako diru-kopuru hauek zuzendu beharko dira Nahitaezko Erreserba Funtsera:

a) Aurreko artikuluan ezarritako soberakin baliagarrien portzentajea.

b) Bazkideen bajaren kasuan, sozietatearen kapitalari nahitaez egin beharreko ekarpenen kenkariak.

c) Sarrera-kuotak.

d) Artezkaritza-kontseiluaren proposamenez, batzar orokorrak bazkideentzako zehazten dituen aldizkako ekarpenak.

58. artikulua. Kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena

Bat. Batzar orokorrak finkatutako oinarrizko ildoak aplikatuz, indarrean dagoen legedian zerrendatzen diren interes publikoko helburuetakoren bat izango du soberakinei aurreko artikuluan ezartzen zaien nahitaezko ekarpenak.

Bi. Aurreko apartatuan adierazten diren helburuetara bideratu ahal izango da nahitaezko ekarpen hori, diru-ekarpenak eginez irabazteko asmorik gabeko entitateei edo indarrean dagoen legedian adierazten diren lankidetzarentitateei.

Bitartekaritza-entitate horiei diru-ekarpenak egiteko, beharrezkoa izango da adierazitako interes publiko horiek dituzten helburuetara zuzentzea ekarpenok; horretarako, bitartekaritza-entitateak berak egingo ditu jarduerak; bestela, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuei zuzenduko dizkie jasotzen dituen baliabideak.

Hiru. Kooperatibak ezin du erabili ekarpen hori, salbu eta arestian aipatu diren interes publikoko helburuetara zuzentzeko; ekarpen hori, horrenbestez, enbargaezina da eta balantzearen pasiboan azaldu behar da.

Lau. Ekarpen horretarako aurreikusitako helburuetarako erabiliko dira kooperatibak bazkideei ezartzen dizkien zehapen ekonomikoak.

Bost. Kooperatibak berak adierazitako interes publikoko helburuetara zuzendu ez den ekarpen horren zenbatekoa irabazi-asmorik gabeko entitateei emango zaie, soberakinaren banaketa onetsi den ekitaldi ekonomikoaren hurrengo ekitaldian, entitate horiek erabil dezaten ekarpen horretarako erabaki diren interes publikoko helburuetan.

59. artikulua. Borondatezko fondoak

Kooperatibak, batzar orokorrean onetsita, egoki irizten dien Borondatezko Erreserba Fondo banaezinak eratu ahal izango ditu.

60. artikulua. Galeren egozte

Bat. Batzar orokorrak galerak konpentsatzeko, honako erregela hauei jarraikiz egingo du:

Borondatezko erreserba-funtsik badago, galera guztiak egotzi ahal izango zaizkie funts horiei.

a) Nahitaezko Erreserba Funtsari egotziko zaio, gehienez ere, soberakin positiboak izandako azkenengo bost urteetan legez nahitaezko diren funtsetara bideratu diren diru-kopuruen batezbestekoa. Nolanahi ere, Nahitaezko Erreserba Funtsak kooperatibaren sozietate-kapitalaren ehuneko berrogeita hamar gaintitzen badu, galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da portzentaje horretatik gorako zenbatekoa.

b) Nahitaezko eta borondatezko funtsekin konpentsatzen ez den zenbatekoa bazkideei egotziko zaie. Zer eragiketa, zerbitzu edo jarduera egin duen bazkide bakoitzak kooperatibarekin, proportzio berean egotziko zaio zenbatekoa. Egindako zerbitzu edo eragiketa horiek bazkide bakoitzak gutxienez egin behar dituenak baino gutxiago badira, aipatutako galera horiek ere proportzionalki egotziko dira nahitaez egin beharreko gutxieneko jarduera kooperatibizatuaren arabera.

Bi. Bazkide bakoitzari egotzi beharreko galera horiek honela kitatuko dira: zuzenean edo bazkideak sozietate-kapitalari egiten dizkion ekarpenetatik kenduta, edo, hala badagokio, bazkideak kooperatiban egiten duen edozein finantza-inbertsionatik kenduta, baldin eta inbertsio horrek egozpen hori onartzen badu; betiere, galera sortu eta hurrengo ekitaldiaren barruan.

Hiru. Galerak kontu berezi bati egotzi ahal izango zaizkio, etorkizuneko irabazien kontura amortizatzen. Bost urtekoa izango da, gehienez ere, galerak horrela amortizatzen epea. Epe hori igaro eta galerarik geratzen bada konpentsatu barik, artikulua honetako Bat. ataleko a), b) eta c) letretan ezarritakoaren arabera konpentsatuko dira; azken kasuan, urtebeteko epean, gehienez jota.

Lau. Aurreko zenbakietan adierazitako epe horiek guztiak igaro eta galerarik geratzen bada konpentsatu gabe, batzar orokorrak erabakitako ekarpen berriekin kitatu beharko dira, edo kooperatibako bazkide izaten jarraitzeko egin beharreko ekarpen berriekin, eta bazkideari baja emango zaio, baldin eta haren ekarpenak estatutuetan ezarritako gutxiengora heltzen ez badira eta ekarpen berririk egiten ez badu. Hori guztia gorabehera, kooperatibak konkurtsoa bultzatu beharko du, konkurtso-legearen arabera.

V. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO ETA KONTABILITATE SOZIALA

61. artikulua. Dokumentazio soziala

Bat. Kooperatibak antolatuta eta eguneratuta izan beharko ditu liburu hauek:

- a) Bazkideen erregistroa.
- b) Sozietate-kapitalari egiten zaizkion ekarpenen erregistroa.
- c) Akta-liburua: batzar orokorrarena, artezkaritza-kontseiluarena, zaintza-batzordearena eta errekurtsio-batzordearena.
- d) Inbentario- eta balantze-liburua eta eguneko liburua.
- e) Lege-xedapenek eskatzen dituzten beste guztiak.

Bi. Liburuek eta kontu-erregistroek koadernatuta eta orrialdekatuta egon beharko dute.

Baliozkoak dira, halaber, nahitaezko liburuak egiteko prozedura informatiko edo elektroni

koen bidez egiten diren idazpenak eta idatzoharrak.

Liburu horiek, euskarri elektronikoan edo paperean eginak, Euskadiko Kooperatiben Erregistroak legeztatuko ditu, sei hilabeteko epean, ekitaldia ixten denetik aurrera kontaturik.

Bat-c apartatuan adierazten diren liburuak legeztatzen ez diren bitartean, akten kopia erkaturia bidali beharko zaio Kooperatiben Erregistroari, hilabeteko epean, akta horiek onartu zirenetik aurrera kontaturik.

Hiru. Sozietate-ekitaldia irailaren 30ean itxiko da urtero.

62. artikulua. Kontabilitatea

Bat. Kooperatibak kontabilitate ordenatua eraman behar du, jarduerari egokitua merkataritza-legeriaren arabera, salbu eta espezifikoki erregulatuta badago; kontabilitate horrek, bestalde, errespetatu behar ditu kooperatibaren araubide ekonomikoaren berezitasunak.

Bi. Ekitaldia ixtean, administratzaileek kooperatibaren urteko kontuak formulatu beharko dituzte, hiru hilabeteko epean, gehienez ere, sozietatearen ekitaldia ixten denetik aurrera kontaturik eta bat etorrira aplikagarri zaion informazio finantzarioari buruzko araudi-esparruarekin. Kontuetan,

jaso beharko dituzte balantzea, irabazi-galeren kontua, memoria eta, hala badagokio, ondare garbian izandako aldaketen egoera eta efektibo-fluxuen egoera.

Administratzaileek kudeaketa-txostena ere aurkeztuko dute ekitaldiko kontuekin batera,

merkataritza-legeriari jarraituz, eta, hala dagokionean, informazio ez-finantzarioaren egoera kudeaketa-txostenaren barruan edo beste txosten batean jasota.

Hiru. Administratzaileek urteko kontuak aurkeztu beharko dituzte Euskadiko Kooperatiben Erregistroan gordailutzeko, hilabeteko epean, kontuak onartzen direnetik aurrera kontaturik. Behar izanez gero, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreena ere aurkeztu beharko dituzte. Administratzaile guztiek

sinatu beharko dituzte urteko kontu horiek eta kudeaketa-txostena; baten baten sinadura falta bada, espresuki adieraziko da zergatik.

VI. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

63. artikulua. Desegiteko arrazoiak

Bat. Honako hauek dira kooperatiba desegiteko arrazoiak:

- a) Sozietatearen helburua betetzea, edo argi eta garbi ikustea ezin dela hura bete.
- b) Bi urtetan jarraian, sozietatearen organoak geldirik edo jarduerarik gabe geratzea, edo, arrazoirik gabe, kooperatiba-jarduera etetea.
- c) Kooperatiba sortzeko legez eskatzen den gutxienekotik behera murriztea bazkide-kopurua, baldin eta murrizketa horrek hamabi hilabete baino gehiago irauten badu.
- d) Estatutuetan ezartzen den gutxienekotik behera murriztea sozietatearen kapitala, baldin eta hamabi hilabete edo gehiago irauten badu murrizketa horrek.
- e) Kooperatiben bat-egitea edo erabateko zatiketa.
- f) Kooperatibaren likidazio-fasea irekitzea konkurtso-prozeduran.
- g) Batzar orokorrak desegiteko erabakia hartzea, estatutuen 35. artikuluan ezarritako gehiengoaren erabakiz.
- h) Legeetan ezarritako beste edozein arrazoi.

Bi. Kooperatibak desegiteko, ezinbestekoa izango da batzar orokorraren erabakia, ohiko gehiengoaren bidez hartua, salbu eta aurreko zerrendako e) eta g) ataletan aurreikusitako kasuetan, non estatutu hauetako 35-Bi artikuluan jasotzen den gehiengo beharko den. Halakoetan, artezkaritza-kontseiluak batzar orokorreko deialdia egin beharko du bi hilabeteren epean. Zaintza-batzordeak edo edozein bazkidek eskatu ahal izango dio artezkaritza-kontseiluari deialdia egin dezala.

Hiru. Artezkaritza-kontseiluak eskatu beharko du kooperatiba judizialki desegiteko, baldin eta batzar-deirik egiten ez bada, batzarrik egiten ez bada estatutuetan ezarritako epean edo, batzarra egin arren, ezin bada desegiteko erabaki, edo kooperatiba ez desegitea erabakitzen bada.

Halakoetan, edozein interesdunek ere eskatu ahal izango du kooperatiba judizialki desegiteko.

Nolanahi ere, interesdunak izango dira: Eusko Jaurlaritzan lan-eskumena duen saila, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, kooperatiben ordezkari handiena duten federazioak eta, hala badagokio, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.

Lau.- Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu beharko da desegiteko erabakia edo desegitea deklaratzeko duen ebazpen judiziala, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da, baita sozietatearen egoitza dagoen lurralde historikoko zabalkunde handiko egunkari

batean ere.

Bost. Desegindako kooperatiba berriro jarri ahal izango da jardunean, desegiteko arrazoi desagertzen baldin bada eta bazkideen ekarpenak itzultzen hasi ez bada.

Horretarako, beharrezkoa izango da batzar orokorraren erabakia, 35-Bi artikuluan aurreikusitako gehiengoaren bitartez hartua. Erabaki horrek ez du ondorerik sortuko harik eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatu arte.

Konkurto-so-prozeduren kasuan, eta likidazio-fasea hasi bada, hitzarmen bat sinatu behar da hartzekodunekin kooperatiba berriro jartzeko jardunean.

64. artikulua. Likidazioa

Kooperatibaren likidazioa indarrean dagoen legedian zehaztutakoekin bat eginda burutuko da.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA. KOOPERATIBA-ARBITRAJEA

Kooperatiben artean, kooperatibaren eta bazkideen artean edo kooperatibaren barruan bazkideen artean sor daitezkeen auziak ebazteko, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua arbitraje-bidea baliatuko da. Auzigaiok, nolana ere, alderdiek askatasun osoz eta zuzenbidearen arabera erabakitako gaiei buruzkoak izan beharko dute; batez ere, kooperatiben printzipio, arau, ohitura eta jokabideak interpretatu eta aplikatzeari buruzkoak.

Kooperatibako bazkideen eta kooperatibaren artean sortzen diren auziak ebazteko, kooperatibako barne-bidea –lege honetan eta berau garatzeko arauetan, sozietate-estatutuetan edo kooperatibaren barne-arauetan ezartzen dena– agortu beharko da gatazkak ebazteko bidetik jo baino lehen; hau da, barne-bidea agortu beharko dute jurisdikzio eskudunera edo epaiketaz kanpoko bidera jo baino lehen.

BIGARRENA. LEGELARI-AHOLKULARIA

Kontu Auditoretzaren Legean edo haren garapen arauetan xedatutakoaren arabera, urteko kontuak kanpo auditoretzapean jartzera behartuta dauden kooperatibek, artezkaritza-kontseiluaren erabakiz, legelariahokku-emaile bat izendatu beharko dute, batzar orokorrak edo artezkaritza-kontseiluak hartu eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskriba daitezkeen akordioak sinatuko dituen.

Akordio horien ziurtagirietan jasota geratuko da letradu aholkulariaren irizpena duten akordio horiek akta-liburuan jasota daudela.

Letradu-aholkulariak erantzukizun zibila izango du kooperatibaren, haren bazkideen eta bazkide ez diren hirugarren pertsonen aurrean zabarkeria profesionala egon bada.

Eginkizun hori betetzea bateraezina izango da zuzendari-gerente, administratzaile edo errekurto-so-batzordeko edo zaintza-batzordeko kide izatearekin.

Kooperatibaren eta letradu-aholkulariaren arteko harremana honako hau izan daiteke: profesional liberal gisa zerbitzuak alokatzekoa, lan-kontratu bati lotutakoa edo sozietate-arlokoa, kooperatibako bazkide-langile gisa.

HIRUGARRENA. DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA ETA SEGIMENDUA EGITEKO MEKANISMOAK

Bat. Kooperatibak delituak prebenitzeko eredu bat edukiko du, eta haien segimendua egiteko mekanismo bat ezarriko du.

Bi. Eredua horren edukia artezkaritza-kontseiluak onartuko du eta batzar orokorrak berretsiko, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa-eredua; salaketa-sistema; zehapen-araubidea; egiaztapen-sistema; aldizkako berrikuspena eta Delituak Prebenitzeko Ereduaren eguneratzea.

Hiru. Delituak prebenitzeko eredu eta eredu horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura ekimen-botere eta kontrol-botere autonomoak dituen kooperatibako organo bati eman behar zaio, edo, bestela, pertsona juridikoaren barne-kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko legezko funtzioa duen organo bati. Kooperatibak besteren kontura diharduten 250 bazkide-langile baino gehiago ez baditu, artezkaritza-kontseiluaren esku utziko da funtzio hori. Kopuru hori gainditzen badu, ordea, organo espezifiko bat izendatu beharko da funtzio horiek bere gain hartzeko, zigor-arloko araudian horrela ezarrita dagoelako.

LAUGARRENA. KOOPERATIBA INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO EREMUA IZATEKO BALIABIDE ESPEZIFIKOAK

Bat. Kooperatiba indarkeriarik gabeko lan-eremua izango da, non emakume eta gizonentzako berdintasun-printzipioak errespetatuko diren.

Bi. Kooperatibak sexu-jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.

Hiru. Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide-langile guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharraz jabetu daitezzen.

Edukien aurkibidea

I. KAPITULUA. IZENA, HELBURUA, EGOITZA, IRAUPENA, LURRALDE-EREMUA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA.....	2
1. artikulua. Izena.....	2
2. artikulua. Helburua.....	2
3. artikulua. Egoitza soziala.....	2
4. artikulua. Iraupena.....	2
5. artikulua. Lurralde-eremua.....	2
6. artikulua. Estatutuen aldaketa.....	2
II. KAPITULUA. BAZKIDEAK.....	3
1. ATALA. BAZKIDEEN ONARPENA.....	3
7. artikulua. Nor izan daiteke bazkide.....	3
8. artikulua. Onarpena.....	3
2. ATALA. BAZKIDEEN BAJAK.....	4
9. artikulua. Borondatezko baja.....	4
10. artikulua. Nahitaezko baja.....	5
11. artikulua. Bajaren ondorioak eta errekurtsoak.....	6
3. ATALA. BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK.....	6
12. artikulua. Eskubide eta betebehar sozialen hastapena.....	6
13. artikulua. Bazkideen betebeharrak.....	6
14. artikulua. Bazkideen eskubideak.....	7
15. artikulua. Informazioa jasotzeko eskubidea.....	8
16. artikulua. Informazio eskubidearen mugak eta bermeak.....	9
4. ATALA. BAZKIDE EZ-AKTIBOAK, BAZKIDE ESZEDENTZIADUNAK ETA BAZKIDE-LAGUNTZAILEAK.....	10
17. artikulua. Bazkide ez-aktiboak.....	10
18. artikulua. Bazkide eszedentziadunak.....	10
19. artikulua. Bazkide-laguntzaileak.....	10
5. ATALA. DIZIPLINA-ARAUAK.....	10
20. artikulua. Falta-motak.....	10
21. artikulua. Falta sozialak.....	11
22. artikulua. Falta sozialen ondoriozko zehapenak.....	11
23. artikulua. Falta sozialen ondoriozko zehapen-prozedura.....	12
24. artikulua. Kanporatzea.....	13
6. ATALA. LAN-ARAUBIDEA.....	13
25. artikulua. Oinarrizko elementuak.....	13
26. artikulua. Gizarte Segurantza.....	14
27. artikulua. Bazkide-langilearen edo lan-bazkidearen etetea edo nahitaezko baja, arrazoi ekonomiko edo teknikoak, edo antolakuntzako, ekoizpeneko edo ezinbesteko arrazoiak direla-eta.....	14
III. KAPITULUA. KOOPERATIBAKO ORGANOAK.....	16
28. artikulua. Organo sozialak.....	16
1. ATALA. BATZAR OROKORRA.....	16
29. artikulua. Kontzeptua eta eskumenak.....	16
30. artikulua. Batzar orokor motak.....	17
31. artikulua. Deialdia.....	17
32. artikulua. Batzar orokorraren funtzionamendua.....	18
33. artikulua. Batzar orokorraren akta.....	19
34. artikulua. Boto-eskubidea.....	19
35. artikulua. Gehiengoak.....	19
36. artikulua. Batzar orokorrak hartutako erabakiak aurkaratzea.....	20
2. ATALA. KOOPERATIBA ADMINISTRATZEA ETA ORDEZKATZEA (ARTEZKARITZA-KONTSEILUA).....	21
37. artikulua. Administratzaileak. Izaera eta eskumenak.....	21
38. artikulua. Osaketa, hautaketa, kargu-uzteak eta bete gabeko karguak.....	23
39. artikulua. Funtzionamendua.....	25
40. artikulua. Administratzaileen betebeharrak eta erantzukizunak.....	26
41. artikulua. Erantzukizun-akzioak.....	27

42. artikulua. Erabakiak aurkaratzea.....	28
3. ATALA. ZAINZA-BATZORDEA.....	28
43. artikulua. Zaintza Batzordea. Osaketa, agintaldia, izendatzea, jarduera- eremua, ahalmenak eta funtzionamendua.....	28
4. ATALA. ERREKURTSO-BATZORDEA.....	29
44. artikulua. Errekurtso-batzordea.....	29
IV. KAPITULUA. ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	30
45. artikulua. Erantzukizuna.....	30
46. artikulua. Kapital soziala.....	31
47. artikulua. Kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpenak.....	31
48. artikulua. Sozietatearen kapitalari egindako borondatezko ekarpenak....	33
49. artikulua. Ekarpenen interesak.....	33
50. artikulua. Ekarpentak eguneratzea.....	33
51. artikulua. Ekarpentak eskualdatzea.....	33
52. artikulua. Ekarpentak itzultzea.....	34
53. artikulua. Sarrera-kuotak.....	35
54. artikulua. Beste finantزابide batzuk.....	35
55. artikulua. Soberakin garbiak zehaztea.....	35
56. artikulua. Soberakinak banatzea.....	36
57. artikulua. Nahitaezko Erreserba Funtsa.....	36
58. artikulua. Kooperatiba-heziketa eta -sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena.....	36
59. artikulua. Borondatezko fondoak.....	37
60. artikulua. Galeren egozteak.....	37
V. KAPITULUA. DOKUMENTAZIO ETA KONTABILITATE SOZIALA.....	38
61. artikulua. Dokumentazio soziala.....	38
62. artikulua. Kontabilitatea.....	38
VI. KAPITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA.....	39
63. artikulua. Desegiteko arrazoiak.....	39
64. artikulua. Likidazioa.....	40
AZKEN XEDAPENAK.....	40
LEHENA. KOOPERATIBA-ARBITRAJEA.....	40
BIGARRENA. LEGELARI-AHOLKULARIA.....	40
HIRUGARRENA. DELITUAK PREBENITZEKO EREDUA ETA SEGIMENDUA EGITEKO MEKANISMOAK.....	41
LAUGARRENA. KOOPERATIBA INDARKERIA SEXISTARIK GABEKO EREMUA IZATEKO BALIABIDE ESPEZIFIKOAK.....	41